BARRUAN, ZURE HERRIKO ALDIZKARIA



**ASTEKO GAIA: EKINTZAILE BERRIAK /2-3**
**KIROLA: DEBAGOIENEKO II. TRIATLOIKO BEHIN BETIKO SAILKAPEN-ZERRENDA /10**


# Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2002ko ekainaren 14a • III. urtea • 69. zenbakia • DOAN BANATZEKOA




**Goienka2a**
**Edertasuna: gero eta estetika ebakuntza gehiago egiten dira**

**BLANCA RONCAL**
*"PSE-EEren mezua garbia da, eta ez goaz ez Espainiako eskumarekin ezta euskal nazionalistekin ere"* **/8-9**

LANGABEZIAREN ERREFORMAREN AURKAKO GREBA OROKORRA

# Lantegi gehienetan 19rako egin dute deialdia

- *Ziurtatu dute 30 bat lantegi handitan greba egingo dutela*
- *Dendarien elkarteek bi orduko lanuztea egitea proposatu dute*



MARIA AGIRRE

## Ilegalizazioaren aurkako deialdia

Alderdi Politikoen Legearen aurka bihar, zapatua, Bilbon egingo duten manifestaziora joateko deia egin diete debagoiendarrei ibarreko Batasuneko alkate eta zinegotziek, "Euskal Herri osoaren eta abertzale guztien aurkako erasoa" delako. Alderdi, sindikatu eta gizarte talde askoren bilgune batek egin du manifestaziorako deia. Batasunak, EAk, Aralarrek, Zutik-ek, ELAk eta LABek, beste batzuen artean, bat egin dute deialdiarekin. *Ilegalizazioari ez. Egitasmo guztiak, ideia guztiak, pertsona guztiak* goiburupean egingo dute manifestazioa. /4

## Hainbat herritarren babesa jaso du Noizko? taldeak Arrasaten

Legeak esaten duenari eutsiz, zigorraren hiru laurdenak beteta dituzten presoen baldintzapeko askatasunaren eskubidearen aldeko taldea sortu dute Arrasaten, Euskal Herriko beste leku batzuetan moduan. Noizko? du izena eta, besteak beste, 120 euskal preso baino gehiago legez baldintzapeko askatasunean egon beharko liratekeela defendatzen du. Arrasaten herriko talde eta herritar esanguratsuen babesean sortu da taldea. **/5**

ENPRESA

### Lantegia zabaldu berri du Txinan Fagorrek

Fagorreko Etxetresna Sailak lehenengo lantegia zabaldu du Txinan, Shangain, hain justu ere. Shangai Minidoméstico Cookware izena du lantegiak eta, aurrera begira, urtean milioi bat lapiko egiteko asmoa dute lantegi horretan, gero, Asiako merkatuan saldu ahal izateko. 300 bat langile ari dira lantegi horretan beharrean. **/4**

BERGARA

### Gaztetxea konpontzeko lanak irailean hasiko dira

Bergarako gaztetxeak urte bi bete dituela-eta, hainbat ekitaldi antolatu dituzte datozen egunetarako Gazte Asanbladakoek. Batzuk aipatzearren, EH Sukarraren kontzertua eta ibarreko gaztetxeen egoeraren gaineko mahai-ingurua. Bestalde, gaztetxea konpontzeko lanak ekainean esleitu eta irailean hasiko dituzte. **/5**







DEBAGOIENA/4 • HERRIZ HERRI/5 • IRITZIA/6-7 • KIROLA/10-11 • NON-ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • BERRI-ZAKUA/19 • ZERBITZUAK/20 • DENBORA-PASA/21

# Ideia onak

## MUko enpresaritza ikasleen ekintzailetasuna sustatzeko lehiaketako sariak banatu berri dituzte, bigarren urtez

LEIRE KORTABARRIA

Inoiz gutxitan konturatzen gara inguruan ditugun zerbitzu eta baliabideetatik asko zein sofistikatuak eta originalak diren. Sarritan esan izan diogu geure buruari "Baina zeinek asmatuko ote zuen hau?", miresmen eta harridura beteratuta. Izan ere, ideiak ez dira zuhaitzetatik erortzen, eta enpresa, zerbitzu eta produktu berriak egiteko direnean, are gutxiago. Hori dela eta, batzuetan, enpresa munduko buruek ideia horiek produzitzeko pizgarri bat behar dute.

Eta pizgarri horietako bat Mondragón Unibertsitateko Enpresa Fakultateak, ETEOk, bigarren urtez antolatu duen ekintzailetasun lehiaketa izan da.

> *"Ekintzaile izatearen irrika, sorkuntza, autoestimua… sustatzen ditugu"*

> *"Enpresa edo produktu berriak asmatu ez ezik, egi bihur ditzakete lehiakideek"*

> *"Bi talde irabazleek euren proiektua garatzeko eta beka bat irabazteko aukera dute"*

Maiatzaren 24an banatu zituzten bigarren edizio horretako sariak. ETEOko azken ikasturteko eta graduatu ondoko ikasleei zuzenduta dago Ekintzaile Gazteendako lehiaketa.

### EKINTZAILETASUNA SUSTATZEA

Lehiaketa ETEOko CITEM sailak, hau da, berrikuntza teknologikorako eta ekintzailetasuna sustatzeko zentroak, antolatu du, eta helburua arduradunek eurek azaltzen digute: "Ekintzailetasuna, eta berrikuntza teknologikoak kudeatzen jakitea, oso garrantzitsuak dira ekonomian eta gizartean aurrera egiteko, eta gure ikasleek eta enpresek balio horiek bereganatzea gura dugu", diote.

Lehiaketak "ekintzaile izatearen irrika, sorkuntza, autoestimua, proiektu berriak hasteko borondatea… bezalako balioak sustatu gura ditu. Horretarako, lehiaketan, proiektu, ekintza eta negozio berriendako ideiak sortzen dira", gaineratzen dute arduradunek. Ideia horiek egi bihurtzea litzateke hurrengo pausoa.

### SAIOLANEN BEKA BAT

Arrakasta handia izan du lehiaketak: 36 proiektu aurkeztu dira. Epaimahaiak honako irizpideak erabili zituen: berrikuntza maila —bai produktuarena, bai eta negozioarena—, eta lan merkatuan izango duen eragina eta ekar dezakeen giza hobekuntza. Sei lan finalera iritsi ziren, eta bi sari nagusi banatu ziren: Saiolanen proiektua garatu eta bideragarritasun ikerketa bat egiteko aukera; horrek emaitza onak ematen baditu, beka bat jasoko dute, proiektua aurrera eramateko.

Saiolanen, Arrasateko Enpresa Berritzaileen zentroan, enpresari gazte horiek euren proiektuak errealitate errentagarri bihurtzeko tresnak izango dituzte euren eskura.



**J.C. ARRIETA, J. FINÓ ETA T. GALLEGO** / LEHENENGO SARIA

# *“Gure arrakastaren gako bakarra lanordu mordoa sartu izana da”*

**Europako iparraldetik iritsi berri harrapatu ditugu Jose Cruz Arrieta, Joseba Finó eta Txema Gallego. Lehiaketa irabazi eta segituan joan ziren hara. Lehiaketa irabazi duen euren ideiarekin zerikusia zuen bidaiak.**



**Zer dela eta iparraldera?**

Europako iparraldea, teknologiari dagokionez, oso gune aurreratua da. Internetera konexio maila oso altua dute; populazioaren gehiengoak du konexioa. Teknologia digitalean, Europako aurreratuenak dira. Hango enpresa batekin hartu-emanetan gabiltza, ea zer edo zer lortzen dugun… Lehiaketako gure lanarekin zerikusia du guztiak, jakina.

**Hortaz, esan daiteke sekulako arrakasta izan duela zuen proiektuak…**

Bai, hala da. Orain, etorkizun hurbilerako dugun asmoa Saiolanen lanean hastea da, eta gure ideia gauzatzea. Jakina, gero merkatu ikerketak egin behar dira, baina Debagoieneko hainbat enpresak produktuarekiko interesa erakutsi dute dagoeneko. Oso pozik gaude eta ilusio handiarekin; baina arrakasta honek guztiak gako bakarra du, eta hori lana da. Ideia honen atzean lan ordu mordo bat daude.

*“Saiolanen lanean hasiko gara orain, eta gure proiektua errealitate bihurtuko dugu”*

**Taldekideak aukeratzeak ere garrantzia izango zuen…**

Bai. Talde egokia osatu dugula uste dugu. Oso desberdinak gara, eta elkarrekin oso betegarriak. 27 urteko ingeniari gazte bat dago, Joseba Finó; bestalde, Jose Cruz Arrietak bere enpresa propioa du eta badaki zer den hori aurrera ateratzea; gainera, beste hainbat enpresatan lan egin du; eta azkenik, Txema Gallego arrasatearra, taldeko “burua”, oso ingeniari ona. Hortaz, taldeko lana egiten jarraituko dugu.

**Tira ba, eskerrik asko eta zorte on!**

**M. BELAR, R. GONZÁLEZ DE AUDIKANA ETA A. IZAGIRRE** / BIGARREN SARIA

# *“Ideia egi bihurtzeko, ate guztiak itxita aurkitu ditugu orain arte”*

**Bizikletaren eta ziklotuturismoaren sektorerako produktu berri baterako ideiarekin sari nagusia irabazi zuten Mikel Belarrek, Román González de Audikanak eta Aitor Izagirrek.**



**Saria irabazi duzue - orain, zer?**

Momentuz, ezer berririk ez… Gure ideia bideragarri den edo ez jakiteko, prototipo bat egin beharko genuke. Orbea enpresarekin berba egin dugu, baina ez dute gu finantzatzeko interesik; hori dela eta, oso zail ikusten dugu proiektua egi bihurtzea, oraingoz, behintzat. Saiolanek proiektua aurrera ateratzeko baliabideak, tutoretza eta dirua eskaintzen dizkigu, baina prototipo bat egin beharko genuke.

**Hortaz, Saiolanen lan egiteko aukera alde batera utziko duzue?**

Bai, momentuz erabaki hori hartu dugu, Saiolanek ez duelako prototipo hori egiteko behar den teknologia. Bestalde, prototipoa prestatzeaz gain, merkatu ikerketa egin beharko genuke, eta abar. Gustura egingo genuke honekin aurrera, baina momentuz, ateak itxita aurkitu ditugu.

**Ekintzailetasun lehiaketa irabazi izanak ez du inongo eraginik izango?**

Praktika apur bat hartzeko balio izan digu, eta enpresa ekintzaren mundua zelakoa den hobeto ikusteko, hori bai. Baina orain, beste asmo batzuk ditugu: adibidez, Enpresa Kudeaketan egiten ari garen masterra bukatu, proiektua egin eta enpresetan begiratzen hasi. Saria, une honetan, “aparkatuta” dago. Bestalde, jakin badakigu hau ez dela Saiolanen lanean hasteko izango dugun aukera bakarra: beste ideiaren bat izanez gero, hango ateak zabalik ditugu.

# Finalistak

SARI NAGUSIA
**Estetoskopio elektroniko digitala**

Auto gidariari segurtasun eta erosotasun handiagoa emateko produktua proposatzen dute irabazleek: hain zuzen ere, alarma, sarrailak, tenperatura, gasolina, aire zakua, bateria… kontrolatuko lituzkeen aparailu digital oso iraultzaile bat.

BIGARREN SARIA
**Komunikazioa eta kokapena kontrolatzeko aparailua**

Bizikletarako asmakizun berri batek kilometro zenbatzailea, pultsometroa, telefonoa, internetera konexioa eta datu fisiologiko eta medikuak eskainiko lituzke.

ETXEBIZITZA
**Instalazio domotikoak**

Interneten bidez kontrolatu ahal izango zitekeen asmakizuna proposatzen zuen talde finalista honek. Makina horren bidez, etxeko aparailu guztiak kontrolatu ahal izango lirateke.

GARRAIOAK
**Kooperatibendako garraio sistema berria**

Goi-teknologiaz diseinatutako tresna baten bidez, MCCko kooperatibei salerosketa ondasun astunak eta paketeak kudeatuko lirateke. Garraioa merkatu eta arinagotu ahal izango liteke.

HIRUGARREN ADINA
**Egoitza aktiboa pertsona nagusiendako**

Elgetan kokatutako 24 lagunendako egoitza aktiboa proposatzen zen: ibilaldiak, eskulanak, artisautza ikastaroak, gimnasia, garraioa… izango lituzkete eskura egoitzako nagusiek.

BIRZIKLATZEA
**Ingurumenarekiko errespetu handiagoa**

Eraikuntza sektoreko hondakinak tratatzeko eta birziklatzeko lantegia egitea proposatzen zuen beste talde finalista batek. Zabortegi kopurua murriztu eta ingurumena babestuko litzateke.

# Aurkeztutakoak

- **Internet eta teknologia berriak, edonon**

  Lehenengo eta bigarren saria irabazi duten proiektuek teknologia digitala txertatzen dute, eta baita aurkeztutako beste hainbatek ere: bonoloto digitala, egoitza publikoak webcam (Internet bidezko kamera) bidez kontrolatzeko sistema, nagusiendako segurtasun sistema birtuala, umezaintza zerbitzu birtuala…

- **Garraioa eta komunikazioa**

  Ideia berriak edozein ekonomia sektoretan ezar zitezkeen: nekazaritza, industria, zerbitzuak… Talde askok garraio eta komunikazio arloa aukeratu zuten. Talde batek itsasontzien kontrol eta komunikazio sistema garatu zuen; automobilean segurtasuna bermatzeko aparailu bat baino gehiago zegoen…

- **Ingurumenarekiko ardura**

  Enpresek gero eta kontu handiagoa izango dute ingurumenarekiko harremanetan, aurtengo lehiakide batzuen lanak kontuan hartzen baditugu: basoko eta eraikuntza sektoreko hondakinak birziklatzeko lantegiak, ingurumen aholkularitza bat, arropa ekologiko lantegi bat, ordenagailuak birziklatzeko enpresa bat…

M
MEMESA SL
*Industri hornidurak*
943 71 24 25



MARIA AGIRRE
Debagoieneko Batasuneko alkate eta zinegotziek egin zuten deia martitzenean Arrasateko udaletxean.

# Batasuneko alkate eta zinegotziek manifestaziorako deia egin dute

*Bihar, zapatua, egingo dute, Bilbon, Alderdi Politikoen Legearen aurka*

ENEKO AZKARATE

Alderdi Politikoen Legearen aurka bihar, zapatua, Bilbon egingo den manifestaziora joateko deia egin diete debagoiendarrei, ibarreko Batasuneko alkate eta zinegotziek. Joan zen martitzenean egin zuten prentsaurrekoa Debagoieneko Batasuneko hautetsiek Arrasateko udaletxean eta han azaldu zituzten biharko manifestaziora joateko arrazoiak.

Euskal Herriko alderdi, sindikatu eta gizarte talde askoren bilgune batek egin du manifestaziorako deia. Batasunak, EAk, Aralarrek, Zutikek, ELAk eta LABek, beste batzuen artean, bat egin dute deialdiarekin. *Ilegalizazioari ez. Egitasmo guztiak, ideia guztiak, pertsona guztiak* goiburupean egingo dute manifestazioa, Casilla plazatik irtenda, 17:30ean. Debagoienean autobusak antolatu dituzte manifestaziora joateko.

**DENON ARAZOA**

Debagoieneko Batasuneko hautetsiek martitzenean prentsaurrekoan adierazi zutenez, zapatuko manifestazioa oso garrantzitsua da, "historikoa" euren hitzetan. Izan ere, Alderdi Politikoen Legea, Batasunaren aurkakoa ez ezik, "Euskal Herri osoaren eta abertzale guztien aurkako erasoa" delako. Batasuna eta, oro har, ezker abertzalea eta herri mugimenduak isolatu nahian eta "indarra erabiliz, paretik kendu nahian" dabiltzala adierazi zuten Batasuneko hautetsiek. Era berean, ilegalizazioak oinarri juridikorik ez duela ere adierazi zuten. "Batasunari zilegitasuna herriak eman dio, Euskal Herriaren zerbitzura lanean dihardualako, eta ez Espainiako legeek", esan zuten.

Horrenbestez, arazoa denona delako eta ez bakarrik Batasunarena, debagoiendar guztiak gonbidatu zituzten zapatuko manifestazioan parte hartzeko.

# Ibarreko lantegi handi askok bat egingo dute eguazteneko greba deialdiarekin

E.A.

ELAko Debagoieneko ordezkariek atzo, eguena, prentsaren aurrean esandakoaren arabera, ibarreko lantegi handi gehienetan bat egingo dute eguazteneko greba deialdiarekin. Candy, Elay, Gamei, Geyser, Iraundi, Aceralia, Katea, Stadler eta Muebles Arrasaten, batzuk aipatzearren, 19rako ELAk eta LABek deitutako greba deialdiarekin bat egin dute eta egun horretan ez dute lanik egingo. ELAko ordezkariek esan zutenez, Fagor Elektratresnetako Kontseilu Sozialak ere eguaztenerako greba deialdia egin du. Beste hainbat lantegi txikitan ere greba egingo dutela esan zuten ELAko ordezkariek.

Greba egiteaz bat, hainbat ekitaldi antolatu dituzte Langabeziaren Erreformaren Lege Dekretuaren aurka egiteko, auto karabanak eta kale bilkurak, esaterako. ELAk Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan egingo ditu manifestazioak eguaztenean. LABek, bestalde, eskualdez eskualde antolatuko ditu eta Bergaran deitu du Debagoienekoa. 12:00etan izango da. Horrez gain, hainbat gizarte mugimenduk deituta, beste protesta ekitaldi batzuk ere egingo dituzte arratsalde partean.

> *Debagoieneko dendarien elkarteek, bestalde, bi orduko lanuztea proposatu dute eguaztenerako*

**DENDARIEK, BI ORDUKO LANUZTEA**

Bestalde, Debagoieneko dendarien elkarteek eguaztenean bi orduko lanuzteak egitea proposatuko diete euren bazkideei: 12:00etatik 13:00etara eta 19:00etatik 20:00etara. Ibai-Arte, Bedelkar, Txanda eta Aretxarte dendarien elkarteek ELAk eta LABek deitutako greba deialdiarekin egingo dute bat, gurean babes handiena duten sindikatuak direlako. Hala ere, "Euskadin bi greba deialdi egitea oso larritzat" jo dute dendarien elkartekoek, eurendako "bereziki kaltegarria delako". Era berean, argi utzi nahi izan dute Langabeziaren Erreformak dendariei zuzenean eragiten ez badie ere, langabeekiko elkartasuna adierazi nahi dutela, baina, gogora ekarri nahi izan dute dendariek ez dutela langabezia eskuratzeko aukerarik.

## BAILARAN LABUR

### EHEko Iñigo Arregik gose greba egin du, epaitegietan euskarak duen egoerarengatik

Euskal Herrian Euskaraz elkarteko kide Iñigo Arregi bergararrak astebeteko gose greba egin du EHEko Bilboko egoitza nagusian. EHEko beste bi kiderekin batera egin du gose greba. Joan den egubakoitzean hasi zuten barauldia eta gaur, egubakoitza, amaitu dute. Epaitegietan eta hainbat epaiketatan euskarak duen presentzia hutsa salatzeko egin dute gose greba. Euskal Herrian Euskaraz taldeko hainbat kide epaitu behar zituzten eta ez ziren epaitegian aurkeztu, epaiketa erabat gaztelaniaz izan behar zelako. Euskal Herrian Euskaraz taldeko kideen ustez, era horretako hizkuntza zapalkuntzak askotan gertatzen dira epaitegietan. /GORKA ETXABE

### Fagorrek lantegia zabaldu du Txinan, urtean milioi bat lapiko egiteko asmoarekin

Fagorreko Etxetresna Sailak lehenengo lantegia zabaldu du Txinan, Shangain, hain justu ere. Shangai Minidomestiko Cookware izena du lantegiak eta, aurrera begira, urtero milioi bat lapiko egiteko asmoa dute lantegi horretan, gero, Asiako merkatuan saltzeko. Txinako lantegi horrekin, Fagor Asiara zabaldu da. Lantegiak 12 mila metro koadroko azalera du, eta 300 langile ari dira han lanean. Aurten, 150.000 lapiko egitea zehaztu dute eta datorren urtean, 300.000; baina, bost urte barru, milioi bat lapiko egitera iritsi nahi dute. Txinako korporazio batekin, Xiangian Stainles Steel Products Company izenekoarekin, akordioa egin ondoren zabaldu dute MCCk eta korporazio txinatarrak lantegia Txinan. /MARIA AGIRRE

Udako Ikastaro Intensiboak
Uztailaren 1tik 24 ra

- Mekanografia ordenagailuz
- Informatika-Ofimatika
- Internet
- Microsoft project
- Autocad
- Programazio informatikoa: Pascal,...
- Gestio kontablea: "Nomina Plus", "Fact Plus", "Conta Plus"
- Nomina eta gizarte segurantza
- Informatikako ekipaien mantentze eta konponketa
- Laguntza klaseak
- Enpresa zientziak
- Ingenieritza (Abuztuan ere bai)

AKADEMIA BASTIDA
INEM-ek HOMOLOGATUTAKO IKASTETXEA
Araba Etorbidea, 3 - 1ª • 20500 Arrasate-Mondragón
Tel.: 943 79 35 33 • Fax: 943 79 06 28 • E-mail: bastida@bastida.es

ARAMAIO

## Tellamendiko gurutzea margotzera joateko dei egin dute

Aramaioarrak lan eta lan ari dira uztailerako Tellamendiko gurutzea gertu izateko. Izan ere, uztailean gurutze hori berriro ipini zutela-eta, ospakizun jaia egin gura dute. Hortaz, bihar, zapatua, gurutzea margotzera joateko dei egin dute. Joan den zapatuan ziren margotzera joateko, baina eguraldi kaskarra egin zuenez, bertan behera utzi zuten. Bihar, 08:30ean, irtengo dira herriko plazatik.

Gura duenak hara joan besterik ez du. Hamarretakoa Aramaioko Udalaren kontura izango da. /UBANE MADERA

ANTZUOLA

## Herriko jaietan tonbola jartzeko lanean dihardute Anelkarrekoek

Jaietako egubakoitz eta zapatuan jarriko dute tonbola Anelkar Elkartasun Taldekoek herriko plazan. Horrela, herritarrei zuzenenean dirua eskatu beharrean, ekimen ezberdina eta parte hartzailea antolatu nahi dute.

Horretarako, herriko eta Bergarako dendariei laguntza eskatu diete, tonbolarako sariak batzeko. Enpresei, berriz, dirulaguntza eskatu diete.

Batutako diruarekin Brasilgo Canudos herrian hainbat proiektu egiten lagunduko dute Anelkarrekoek. /AINTZANE IRIZAR

ELGETA

## Jai batzordeak bihar, zapatua, aurkeztuko du jaietako egitaraua

Bihar, zapatua, 22:00etatik aurrera, aurtengo Ferixa Nagusietako egitarauaren aurkezpena izango da Espaloia aretoan. Egitaraua aurkeztu ondoren, *Hau paraderoa!* antzezlana izango da Espaloian.

Jai batzordeak jakinarazi digunez, ikusmin handia sortu dute bai jaien aurkezpenak baita antzezlanak ere. Izan ere, sarrera guztiak agortu dira dagoeneko. Ferixa Nagusiak gertu daudela ospatzeko, xanpaina banatuko du Jai batzordeak Espaloia aretoan. /OXEL EROSTARBE



UBANE MADERA

ARRASATE

## Preso politikoen baldintzapeko askatasuna defendatzeko taldea aurkeztu dute. Noizko? du izena eta ekainaren 30ean, Noizko? Eguna antolatuko dute Arrasaten

Legeak esaten duenari eutsiz, zigorraren hiru laurdenak beteta dituzten presoen baldintzapeko askatasunaren eskubidearen aldeko taldea sortu da Arrasaten, Euskal Herriko beste leku batzuetan moduan. Noizko? du izena, eta besteak beste, 120 euskal preso baino gehiago legez baldintzapeko askatasunean egon beharko liratekeela defendatzen dute. Arrasaten herriko talde eta herritar esanguratsuen babesean sortu da taldea. Martitzenean egindako aurkezpenean izan ziren, besteak beste, Arrasateko hiru alkate (Jose Antonio Altuna, Alvaro Arregi eta Xabier Zubizarreta), Aitor López Rekarte *Bonba*, Andoni Altzelai SUDCeko ordezkaria eta Anari abeslaria. Atxikimendu gehiago eskatuko dituztela iragartzeaz gainera, ekainaren 30ean, Noizko? Eguna antolatu dute. /U.M.

BERGARA

# Gaztetxea konpontzeko lanak ekainean esleitu eta irailean hasiko dira

Halaxe adierazi zuten Gazte Asanbladako kideek joan den astelehenean egindako prentsaurrekoan. Duela astebete batzartu ziren Udaleko arduradunekin, eta astelehenean esan zutenez, ekainaren amaieran gaztetxea konpontzeko lanak esleitzeko baldintzak kalean izango direla adierazi zieten batzar hartan, baita iraila amaierarako edo urria hasierarako obrak hasita egongo direla ere.

**BIGARREN URTEURRENA**

Prentsaurrekoak beste xede bi ere izan zituen: batetik, gaztetxearen 2. urteurrenaren berri ematea; eta, bestetik, bi urteotako balantzea egitea, oso positiboa, 100etik gora ekitaldi antolatu dituztelako.

Bihar, ekainak 15, egingo ditu urte bi gaztetxeak. Gazte Asanbladako kideek azaldu zutenez, “2000. urteko ekainaren 15ean, kartzela zaharra ekitaldiak antolatzeko erabili ahal izango genuela adierazi zigun Udalak. Oso data garrantzitsua da hori guretako, horregatik erabaki dugu hori izatea urteurreneko eguna; dagoeneko bigarren urteurrenarena, hain justu ere”.

Urtemuga ospatzeko, hainbat ekitaldi antolatu dituzte Asanbladako kideek. Gaurtik datorren ekainaren 23ra arte, askotariko ekitaldiak egongo dira. Batzuk aipatzearren: gaur, 22:30ean, EH Sukarra taldeak *Galtzailearen egunak* lana aurkeztuko du; eta ekainaren 23an, Deba ibarreko ordezkariek gaztetxearen egoeraz jardungo dute mahai-inguruan. M.B.

**Zertzelada**

**Bihar, ekainak 15, urte bi beteko ditu gaztetxeak. Bigarren urteurrena ospatzeko, bi astean barrena hainbat ekitaldi antolatu ditu Asanbladak.**

OÑATI

# Antzerki ikastaroan ikasitakoa taula gainean erakutsiko digute bihar

Aurten bigarren aldiz antolatu du gaztelekuak Antzerki lantegia. Ikasturtea amaitzera doa eta ikastaro horretan ibili diren sei ikaslek *Tengamos el sexo en paz* antzezlana eskainiko dute domekan, ekainaren 16an, Institutuko aretoan, 19:00etan. Maite Larrea legazpiarra izan dute irakasle, Oihulari Clown taldeko kidea izandakoa.

Antzezlan hori eskainiko diguten ikasleak sei neska dira, sei neska gazte. Ikastaroa amaitu duten arren, gustua hartu diote antzerkigintzari eta badirudi ez dela hau izango eskainiko diguten antzezlan bakarra. Eta izena ere jarri diote taldeari: Zugai. /AINTZANE IRIZAR



KONTZEJUPETIK

Sei aktoreak Maite Larrea irakaslearekin.

ARETXABALETA

## Sukaldeko olioa birziklatzeko bilketak izango dira hilean behin

Ecogras enpresa, Aretxabaletako Udalarekin lankidetzan, sukaldeko olioa birziklatzeko bilketa egiten hasiko da.

Ecograsek hilabeteko azken astelehenean batuko du olioa. Horretarako, kamioi bat jarriko du Belorrietako azokagunean, 10:00etatik 13:00etara bitartean. Herritarrek etxean batutako olio zaharra beirazko, plastikozko, metalezko edo brik ontzietan eraman beharko dute kamioiraino. Horrela eginez gero, emandako laguntzagatik oparitxo bat jasoko dute herritarrek. /A.L.

ESKORIATZA

## San Pedro Txiki jaiak ospatuko dituzte asteburuan Eskoriatzan

Eskoriatzako San Pedroko eta Intxaurtxuetako auzotarrek San Pedro Txiki jaiak antolatu dituzte.

Egubakoitzean hasiko dira jaiak txupinazoarekin, eta sabela beteta hasteko, saihets-jana egongo da. Zapatu goizean, umeendako jokoak egongo dira; arratsaldean, berriz, txapelketak izango dira nagusi: mus, areto futbol eta saskibaloi txapelketak; eta gauean, dantzaldia eta DJ-en ekitaldia. Domekan, Tortilla Lehiaketa eta Tute Txapelketa egongo dira. Arratsaldean, berriz, luncha erretiratuendako. /M.A.

LEINTZ GATZAGA

## Udaleku irekiak egingo dituzte uztailaren erdiko asteetan

Udaleku irekiak antolatzeko lanetan ari dira Gatzagako gurasoak. Guztira, bi urtetik gorako 25 ume inguruk parte hartuko dute, GUREL elkartearen esanetan. Udalekutako programa datozen egunetan zehaztuko dute.

**BEGIRALEAK BEHAR DIRA**

Baina udalekuak egiteko begiraleen premian dago GUREL. Euskalduna izatea, autoa edukitzea eta umeen aisialdian eskarmentua izatea eskatzen du GUREL elkarteak. Informazio gehiago: 943 71 54 25. /A.G.

# Zabalik



JABIER ARANTZETA

## Gure mutilak

**Ostikoka hasi zaizkigu gure mutilak. Hor dabiltza, munduaren beste puntan, pilotatxoari ostikadak eman eta gustura, gure herria ordezkatuz. Izan ere, denek daukate garbi euren herriaren ordezkari direla. Guk, euskaldunok, geure ordezkaririk izan ezin dugunez, Espainia handia edo Frantzia handiagoarekin bat egin behar.**

**Frantziako selekzioa, frantziar benetakoenek uste dutenaren arabera, oso frantziar ez diren beltz eta ipar-afrikarrez beteta joan da Ekialde Urrunera eta burumakur itzuli behar izan da ipar-afrikar horietako bat min hartuta ei zegoelako, hau pena hau! Laster dira benebenetan frantziar diren horiek arazoari konponbidea bilatzeko, sasoi batean hainbat bizkaitar kalamidaderen antzera, zortzi abizenak erabat frantziarrak dituzten jokalarien bila.**

**Bestalde, Espainiako selekzioa daukagu. Eta honetan guztiz geurea den jokalaria, espainiarra ere badela erakutsiz, izugarri ondo jokatzen ei dabil. Geu, normalak bagina, poztu egingo ginateke geure mutila hain ondo dabilelako, baina oso normalak ez garenez, gauzak zeharka begiratzen ditugu eta horrela begiratuta beste gauza batzuk ikusten ditugu.**

**Horrela, pentsatzen hasten gara kasualitate handi samarra ere badela urte osoan kurioso besterik ibili ez den Realeko futbolaria derrepentean hain ona bihurtzea. Baliteke Espainia ordezkatzeak ematea ontasun hori, edo duela urtebete inguru Madrileko egunkari hartan kaleratutako gezur multzo hura gezurtatu nahian aritzea gizon hori, edo, arrosak bezala, maiatzean egotea bere onenean. Baina, bere dohainak hain garbi erakutsi eta gero, dohain horiei prezioa jartzen hasten denean, orduan, susmo txarrak hartzen dira. Edozein modutan, honek ere badu konponbiderik: hor zehar izugarrizko dirutza emateko prest badaude, doala hor zehar diruok kobratzera, horrela, agian, bera baino hoberen agertuko da.**

# Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAk bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefonoa: 943 76 92 72
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: iritzia@goiena.com

## Greba orokorrerako deialdi bikoitzaren aurrean

Langabeziaren erreforma dela eta, grebarako egin diren bi deien inguruan zera adierazi nahi dugu STEE-EILAS sindikatukook:

1. STEE-EILASek uste du sobera arrazoi daudela greba orokorra egitera deitzeko. Langabezia sistemaren aldaketa dekretu kolpez aprobatzeak argi uzten du PPren elkarrizketa ulertzeko era. Neurri hauekin lortu nahi dutena da, langabeziaren estaldura murriztea edo langileak kaleratzearen merkatzea izateaz gain, tresna bezala erabiltzea langileak edozein modutako lanpostuak onartzera behartzeko, badaezpadako lana gehituz.

Eskubide sozialak eta lan egonkorra hondatzeko bidean beste pauso bat. Urtetan zehar gizartearen aurka daramaten jokabidea eta arlo guztietara zabaltzen dena: hezkuntza sistema elitista eta bereizkeria bultzatzen duena, libertateen murrizketa... Laburbilduz azaldu dugun egoera honek PPren planen aurrean erantzun bateratu eta sendoa emateko beharra baieztatzera garamatza.

2. Politika bide hauen aurkako erantzunak Euskal Herrian greba orokorrerako deialdia bi egun desberdinetan gauzatzea ekarri du, ekainaren 19an eta 20an, eta horrek hausnarketa sakon eta autokritikoa behar lukeela uste dugu euskal sindikatuen aldetik. Greba orokorrak, orokorra baldin bada, arrakasta izateko gutxienezko batasunean oinarritu behar du. Deialdi desberdin bitan banatutako grebak ezin izango du inolaz ere langileria osoa bildu. Gerta daitekeena da, tamalez, lantegi askotako eztabaida —greba egunari— soilik lotzea, bigarren maila batean geldituz PPk ezarri nahi dizkigun gizartearen aurkako neurrien salaketa. Hain egoera ezkorraren aurrean, interesgarri iruditzen zaigu hausnarketa batzuk egitea:

Lehen hausnarketa: Berriz ere CCOO eta UGT erakundeek deialdia Madriletik egin dute, beste edozein erakunde sindikalen presentzia kontuan hartu gabe. Eta hori, esparruaren arabera ordezkaritza handia duten sindikatuak izanik (CIGA Galizian edota Katalunia, Kanariak eta Valentziako intersindikalak...) edo gehiengo handia dutenak, Euskal Autonomia Erkidegoan ELA bezala. Jarrera hau hegemonismo helburuaren ezaugarri bat gehiago bezala bakarrik har daiteke, nazioen errealitatea alde batera utzi eta beraien asmoak goitik behera ezartzeko asmoz, nabarmenki gutxiengoa diren esparruetan ere, Euskal Autonomia Erkidegoan bezala. Horri, sindikalgintza egiteko era honek zenbait sektoretan sortzen duen konfiantza eza gehitu behar zaio, batez ere, CCOOk orain PPk ezarri nahi dituen antzerako neurriak izenpetzeak.

Bigarren hausnarketa: Txanpon berdinaz ordaintzea erabaki dute ELAk eta LABek. Euskal Herrirako egun bat aurreratzea deialdia, sindikalgintza borrokalariagoa eta euskal gizartearen ezaugarri bereziak azpimarratu nahian, positiboa izango litzateke, deialdia egun horretarako bateratzea posible baldin balitz. Baina ondorioa zatiketa den heinean, hobeto izango litzatekeela uste dugu, sindikatuen indar hori aipatu ezaugarriak adierazteko erabiltzea deialdi bereziak eginez, baina data zalantzan jarri gabe. Ez dugu ahaztu behar, euskal gizartearen aniztasunaren arabera, egoera desberdinekin aurki gaitezkeela: EAEn gehiengoa dena gutxiengo bihurtzen da Nafarroan, nahiz eta mobilizatzeko gaitasun handiko sektoreak bildu bertan.

3. Oraindik hiru aste falta direla deialdi egunetarako, ikus dezakeguna komunikabideen bidez batak besteari berera etor dadin luzatzen dion gonbita da. Denek onartzen dituzte zatiketaren ondorio larriak, baina ezinbestekotzat onartzen dituzte, natura legeen ohizko emaitzak balira. STEE-EILASek ez du egoera hau onartzen. Zatiketa pertsonak hartzen dituzten erabakien fruitua besterik ez da, eta erabakiak aldatu ere egin daitezke. Aldatzeko denbora badagoela uste dugu eta horri ekingo diogu.

RUBEN BELANDOA (STEE-EILAS)
Euskal Herria

## Bazenekien?

Bazenekien… Arrasateko Udaleko azkeneko osoko bilkuran Eudelek ETAren mehatxupean dauden biztanle eta kargu publikoak defendatzeko deklarazioa onartu zuen. Batasunak izan ezik, gainerako alderdi politiko guztiek eman zuten aldeko botoa.

Bazenekien… Osoko bilkuran izan ginen Alderdi Sozialistako zinegotziek bilkura bertan behera utzi behar izan genuen, bertan zeuden herritarren irain eta mehatxuengatik. Alkateak eta alderdi abertzaleek ez zuten egoera hori eragozteko ezer egin.

Bazenekien… PP alderdiko zinegotzia ez da etortzen istilutsuak izan daitezkeen osoko bilkuretara, joan den maiatzaren 30ean gertatu zen moduan. Horrela, sozialistok bakarrik uzten gaitu gure udalerrian askatasuna eta demokrazia defendatzeko.

Bazenekien… Egitamu Orokorrak Gelmako langileen lanpostuan duen eragina dela-eta, alkatea batzarrak egiten ari da. Alkateak ez dio gura batzar horien berri eman Lan batzordeari.

Bazenekien… Sozialistak ez gaude batere ados Espainiako gobernuak egin gura duen Langabezia Prestazioen Erreformarekin, eta ekainaren 20an izango den lanuztearekin bat egiten dugu. Ezker Batuak ez du argi erakusten hilaren 20ko lanuztearekin bat egiten duen edo ez. Gobernu abertzalearekin dituen konpromisoengatik. Horrela, protesta ekintza ahuldu egiten du.

Bazenekien… Dena dela, EAk eta Ezker Batuak Arrasateko Batasunaren alkatetzan jarraitzen dute, udal gobernuan parte hartzearen truke.

ARRASATEKO PSE-EEKO
ZINEGOTZI TALDEA
Arrasate

# Olatz eta Patxi

MIKEL ARROIABE



## Ekainaren 19an, greba orokorra Euskal Herrian

Ekainaren 19ko greba orokorra ezinbestekoa da PPren inposaketari eta probokazio politikoari denok elkarturik erantzuteko. Guk planteatzen dugun greba orokorra eta CCOOrena eta UGTrena nabarmenki desberdinak dira. Sindikatu hauek deitzen duten grebak azken erreforma honi bakarrik erantzuten dio. Gainera, ezin ahaztu sindikatuok erreforma kate luzearen inposaketari laguntza eman diotela, batzuetan jarrera pasiboaz eta beste batzuetan zuzenki parte hartuz, euskal sindikalgintzarekin ezer adostu gabe. Ezin gaitu baldintzatu PPren politika neoliberalen segizioa egiten duen sindikalgintza dekadente horrek.

Adibide moduan azaltzera goaz honi buruzko datu konkretu batzuk: 1992an, Langabezia pentsioak murrizteko dekretazoa; 1994an, Lan merkatuaren erreforma (ETTak, zabor kontratuak, kaleratzeen malgutzea…); 1997an, aurreko erreformaren sakontzea, oraingoan, CCOOrekin eta UGTrekin adostua: kaleratzeko malgutasun handiagoa, kaleratze-indemnizazio eskasagodun kontratu finkoak…; 2000n, Estranjeria legearen erreforma; 2001ean, Pentsioen ituna, gobernuak CCOOrekin; 2001ean, Negoziazio kolektiboa zentralizatzeko erreforma saiakera, gobernuak CCOOrekin eta UGTrekin; 2002an, Langabezia prestazioak murrizteko dekretua. Azken dekretu hau, beraz, beste pauso bat besterik ez da erreforma kate luze horretan eta langileon aurkako inposaketa prozesu horren barnean kokaturik dago.

Azken dekretua errefusatzeaz gain, erreforma kate osoari tinko egin behar diogu aurrera eta argi adierazi behar dugu Lan Harreman eta Babes Sozialerako Euskal Esparruaren beharra, euskal langileok geure eskubideak eta geure etorkizuna defenditzeko erabaki esparru propioa izan dezagun. Greba orokorrarekin neoliberalismoa eta politika antisozialari aurre egiteaz gain, inposaketari, faxismoari eta Euskal Herriaren aurkako erasoei erantzun nahi diegu. Egoerari aurre egin eta Aznar geldiarazi behar dugu berandu izan baino lehen. Gure herriko sektore progresistekin batera, gure eskubideen eta geure etorkizunaren defentsan, euskal langileriak erantzun indartsu eta bateratua emateko ordua da.

JUAN LUIS BARRUTIA (LAB)
Bergara

## Alderdi politikoen legerik ez. Hemen denok gara beharrezkoak

Euskal gizarteak egoera latza bizi du: bizikidetza gehiago hondatzeko arriskuan dago. Alderdi Popularra dugu horren erantzuleetako bat. Nahiz eta funtsezkoa izan, ez digu hitza eman nahi inolaz ere euskal herritarroi. Gobernu hau, PSOEren aurreko guztiak bezalaxe, itxiitxia da, ez du borondaterik irtenbideak, aukerak... bilatzeko. Salbuespenezko neurrietan oinarritutako legeria luze bezain zabalean babesten du bere burua, eta horrek, egia esan, mugatu baino ez ditu egiten askatasun demokratikoak. Legeria honen babespean bakarrik eman daitezke tortura-kasuak, azkenaldian ugaritzen ari direnak baina.

Alderdi politikoen legea ohizkanpoko neurria da, erabat antidemokratikoa, eta askatasunak murrizteaz gain, eragin politiko zitalak ditu. Helburu argia du: Batasuna ilegalizatzea, hurrengo hauteskunde-prozesuan parte hartzea eragozteko, eta hartara erakundeetatik behin betiko baztertzea. Legearen asmoak, dena den, sakonagoak dira, egungo sistemarekiko alternatiboak edo kontrakoak diren bestelako planteamendu politikoetan ere aplika daiteke eta. Lege honekin mugatu egiten da edozein taldek bere ideiak defendatzeko duen eskubidea. Bat ez etortzeko eskubidea kriminalizatu egiten da, eta hori larria iruditzen zaigu benetan. Horrela, bada, Zutikek erabat arbuiatzen du neurri hau.

Dena den, PP ez da Euskal Herrian bizi dugun ernegazio politikoaren erantzule bakarra. ETAk ere zuzeneko zeresana du. Heriotzek, atentatuek, mehatxuek, beldurra tresna politiko gisa erabiltzeak... desagertu egin behar dute Euskal Herri libre eta anitzaz mintzatu ahal izateko. Ez da ez aurrerakoia ez askatzailea bestelako pentsamoldea duena mehatxatu edo hiltzera kondenatzea. Horixe da aniztasuna errespetatzekotan saihestu beharreko lehen gauza.

Demokrazia eta askatasun handiagoak behar ditu Euskal Herriak. Alderdien legea, salbuespenezko legeak, torturak, mehatxuak, heriotzak…, ordea, askatasunaren aurkakoak dira. Horren aurrean, denok tokia dugun Euskal Herriaren alde egiten dugu apustu. Baina zeregin horretan hiritarren borondateak izan behar du muga bakarra, eta polarizazioa desagerrarazi egin behar da, bizikidetza kaltetu egiten du eta. Horretarako, baina, herriaren eskariak onartu eta bideratu behar ditu PPk, eta sueten mugarik eta baldintzarik gabea aldarrikatu ETAk. Horiek funtsezko baldintzak dira inor baztertuko ez duen eta guztiona izango den Euskal Herria eraiki ahal izateko.

Bukatzeko, deia luzatu nahi dugu ekainaren 15ean, larunbata, 17:30ean, Bilboko La Casillan egingo den manifestazioan parte hartzeko.

ZUTIK
Debagoiena

## Euskaltel, TeleDonosti, GOITB, 'e-debagoiena' eta beste

Zulatu dituzte kaleak eta badatoz kableak. Euskaltel eskaintza egiten dabil: telefonoa, internet eta telebista, dena kabletik. Telebistan, ohiko kateak (ETB1, ETB2, TVE1, TVE2, T5...), berri emankizunak (CNN, Euronews...), dokumentalak, musikala…, eta "herrikoak" (gipuzkoarrentzat, Teledonosti eta Localia TV).

Pentsatzen jarri naiz: eta GOITB? Beste toki batzuetan Telebilbao, Canal Gasteiz, Tele7, Canal Bizkaia eta Bilbovision ere hartu ahal izango dituzte. Denak erdarazkoak. Eta GOITB?

Kasualitatez GOIENKARIA zaharrak ordenatzen ari nintzela, *e-debagoiena* proiektuari buruzko gehigarri bat aurkitu dut. Partaideak: udalak, Goiena, MCC, MU, Jaurlaritza, Euskaltel... Kablea, internet, teknologia berriak... hiru hizkuntzatan: euskaraz, ingelesez eta erdaraz. Oraingoz, ingelesez eta erdaraz bai; euskaraz?

Prentsatik jakin dut: Euskara Biziberritzeko plana egin nahi omen du Bergarako Udalak, Eusko Jaurlaritzarekin eta Gipuzkoako Diputazioarekin batera. Beste 14 herritan ere horretan ari omen dira eta aurrerago herri gehiago ere hasiko omen dira. Dudarik barik, milioi mordo bat gastatuko dira. Baina, zer plan, gero diru publikoz eraiki den enpresa batek, Euskaltelek, alde guztietara gaztelaniazko telebista bakarrik eramaten badu?

Berriz ere debagoiendarrok donostiarrek edo Cantalapiedrakoek esaten eta erakusten digutena entzuteaz eta ikusteaz konformatu behar ote dugu? Geuk ez ote daukagu ezer esateko eta erakusteko? Gero kexatu egingo gara eta gure buruaren berri kanpoan emateko eta hona turismoa erakartzeko publizitatetan milioiak gastatzen jardungo dute hemengo udalek.

Egingo dute zerbait Euskaltelek, bailarako udalek, Eusko Jaurlaritzak, Diputazioak, Goienak... hau konpontzeko? Esango diogu herritarrok Euskalteleko komertzialari, etxera datorkigunean, GOITB hartzeko aukera ematen ez diguten bitartean ez dugula kontraturik sinatuko?

Geurea da hitza.

O.G.O. (15.385.605)
Bergara

### Adierazpen askatasuna. Jon Abrilekin elkartasuna

Informazioa ematea delitu bihurtu daitekeen sasoiotan, Goiena Komunikazio Zerbitzuak taldeak bat egiten du Jon Abril kazetari beratarrarekin eta elkartasuna azaldu nahi dio publikoki lerro hauen bidez.

Jon, herri komunikabideen esparruan buru-belarri lanean aritzen den kazetaria, euskararekin eta kulturgintzarekin izan duen konpromisoagatik da ezaguna. Lanean ari zen telebistarako, Nafarroako Bortzirietako Ttipi-ttapa telebistarako hain justu, irudi batzuk hartzeagatik epaitu dute oraingo astean Auzitegi Nazionalean, eta deliturik egin ez duela jakin arren, erruduna dela onartu behar izan du, zigor handiagoa jasotzeko arriskua zuelako.

Bidegabekeria honen aurrean, Goienak ezin du ahaztu Jonen helburuak eta gureak berdintsuak direla, eta ezta ere, epaiketa hori adierazpen askatasunaren aurkako ekintza bat baino ez dela.

Horregatik guztiagatik, Goienako kide guztion elkartasuna Joni. Eutsi goiari!

GOIENA KOMUNIKAZIO ZERBITZUAK
Debagoiena

**DATORREN ASTEKO EZTABAIDAGAIA** — Iritzia emateko: iritzia@goiena.com

*Zer iritzi daukazu umeei ematen zaizkien txertoen gainean?*

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal
ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa
SAILETAKO ARDURADUNAK
Goio Arana (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)
PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga, Natali Martinez, Izaskun Bolinaga, Ziortza Martin, Imanol Elortza
PRODUKZIOA
Iban Arantzabal
TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate, Gari Bragado
HARPIDETZA ETA BANAKETA
Julen Aranguren
Goiena Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# *Blanca Roncal*

PSE-EEKO ZUZENDARITZAKO KIDEA

# “Alderdi Politikoen Legeak ez du konponduko hemengo arazoa, baina konponbidera hurreratuko gaituela uste dut”



Martxoan aukeratu zuten Euskadiko PSE-EEko exekutiba berriko diru kontuen ardura dauka. Legebiltzarkidea da Gasteizen eta zinegotzia Arrasaten. Hain justu, Blanca Roncal (Auritz, Nafarroa, 51 urte) PSE-EEk Arrasaten dituen lau zinegotzietako bat da. Egungo egoera politikoaren eta PSE-EEren exekutiba berriaren gainean berba egin dugu Blanca Roncalekin.

ENEKO AZKARATE

**Euskal sozialisten artean kontuak barego dabiltza PSE-EEk exekutiba berria aukeratu zuenetik eta Redondo Terreros euskal sozialisten buru ez denetik?**

Kongresu guztien bezperan egonezin eta tentsio egoerak izaten dira. Hori normala izaten da, hautagai eta egitasmo ezberdinak aurkezten direlako. Kongresua amaitzen denean eta idazkari nagusi berria aukeratzen denean, baina, jendea trankildu eta egoera baretu egiten dela esango nuke.

**Hala ere, egoera politikoak nahasi samar segitzen duela ez duzu uste?**

Euskadin gaur egoera bat bizi dugu eta bihar beste bat. Esan nahi dut gaurko egoera politikoaren argazkia bihar zaharkituta dagoela, egoera politikoa oso aldakorra delako. Euskal sozialisten kongresuak ez du Euskadiko egoera politikoa baldintzatzen, azken baten, sozialistak ez garelako tentsio egoerak sortzen ditugunak. Sozialistok lankidetzarako eta indar demokratikoen batasunaren aldeko jarrera erakutsi dugu beti. Indar politiko demokratikoen arteko harremanak zein elkarrizketa saioak bultzatzearen eta normalizatzearen aldekoak izan gara beti. Hemengo benetako arazoa terrorismoa da eta terrorismoari aurre egiteko eta garaitzeko eskutik jardun behar dugu indar politiko demokratikoek.

**Zertan igarri da sozialisten Zuzendaritza aldaketa hori?**

Aipatu dudanez, jendea trankildu egin dela nabarmenduko nuke. Kongresuaren aurretik, eskuin espainolak bultzatutako sekulako kanpaina mediatikoa jasan behar izan genuen. Redondo Terrerosen aldekoak Zuzendaritzatik bota eta alderdia euskal nazionalisten esku utzi nahi genuela eta horrelakoak entzun behar izan genituen. Bueno, dagoeneko hilabete bi igaro dira kongresua egin genuenetik hona eta bai, Zuzendaritza aldatu da, baina jendeak argi ikusi ahal izan du gure mezua garbia dela eta ez goazela Espainiako eskumarekin ezta euskal nazionalistekin ere. Gure esparru autonomoa aldarrikatu gura dugu eta, ideiak argi ditugunez, horretan dihardugu.

**Patxi Lópezekin EAJrengana hurbildu da PSE-EE?**

Euskal Udal Elkarteen akordioa bultzatu eta sinatu dugu, demokraten batasuna bultzatzen duelako, balio demokratikoak babestea lehentasunezkoa delako une honetan. Bestalde, Legebiltzarrean batzuetan jeltzaleekin bat egin dugu, baina beste batzuetan popularrekin. Beste hainbat kontutan ez EAJrekin ezta PPrekin ez dugu egiten bat, haiek eskumako politika bultzatzen dutelako eta guk, ostera, ezkerreko baloreak nahi ditugulako gizartearendako.

**PPren gonapean zabiltzatela leporatu dizuete sarritan.**

Beste ezer esatekorik ez dutenean edo gure arrazoiei aurre egiteko argumenturik ez dutenean erabiltzen dute hori. Gu ez gara PPren *monagilo*. Adostasunak baino, ezadostasun handiagoak ditugu PPrekin. Estatutuaren defentsan egiten dugu bat PPrekin. Euskaldunen arteko adostasun handiena estatutuaren inguruan lortzen dela uste dugu eta horregatik defenditzen dugu estatutua. Gero, PPk gurekin bat egiten duela? Gu aspaldi gabiltza estatutuaren aldeko defentsan, PP baino askoz lehenagotik.

**PSE-EEren Zuzendaritzan emakumeak nagusi izanagatik gauzak beste modu batera egiten dituzue?**

Zuzendaritza berrian 19 lagun gaude eta horietatik 10 emakumeak gara. Emakumeak, oro har, parte hartzaileagoak garela esango nuke. Bestalde, Zuzendaritza berria lehenagokoa baino txikiagoa da eta horrek ere parte hartzea errazten du.

**Zer iritzten diozu Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako gotzainen pastoralari?**

Gotzainek politika kontuen eta beste edozein gairen inguruan jardutea eta iritzia ematea ondo iruditzen zait. Baina deigarria da beste batzuetan iritzirik eman ez izana eta oraingoan, ostera, Alderdien Legearen gainean iritzia ematea. Euskal nazionalisten posturak defenditzeko plazaratu dute pastorala. Terrorismoaren aurkako akordioa egin genuenean muzin egin zioten iritzia emateari. Orain, beste jarrera bat erakustea benetan deigarria da eta azalpen bat ematea ondo legoke. Oro har, euskal nazionalisten ahultasuna erakusten du pastoralak.

**Baina pastoralak dionari buruz zer iritzi daukazu?**

Bada, ez zait ez ondo eta ez txarto iruditzen. Abadeen sermoiak ere ez ditugu entzuten. Nahi dutena esatea dute, baina euren jarraitzaileei zuzendu daitezela. Gertatzen da nazionalistak ez diren eliztarrak eta abadeak ere badaudela hemen.

**Eta zer iritzi daukazu PPko gobernuak pastoralarekiko erakutsi duen jarreraren gainean?**

Gehiegizkoa izan da. Aznarrek jarrera autoritario beldurgarria erakusten du eta pentsatzen du dituenak baino botere gehia-

INDARKERIA

**“Hemengo benetako arazoa terrorismoa da, eta terrorismoari aurre egiteko eta hura garaitzeko eskutik jardun behar dugu indar politiko demokratikook”**

ESPARRU PROPIOA

**“Gure mezua garbia da eta ez goaz Espainiako eskumarekin ezta euskal nazionalistekin ere. Gure esparru autonomoa aldarrikatu gura dugu”**

GOTZAINEN JARRERA

**“Gotzainek politika kontuez iritzia ematea ondo iruditzen zait. Baina deigarria da beste batzuetan iritzirik eman ez izana eta oraingoan, Alderdien Legearen gainean iritzia ematea”**

SISTEMAREN BABESA

**“Alderdi politikoak talde pribilegiatuak dira demokrazian. Horregatik, demokraziak eskaintzen dituen errekurtso bereziak demokraziaren aurka egiteko erabiltzea ez da zilegi”**



XABI URZELAI

go dituela. Pastoral honek Euskadin garrantzia izan dezake, baina ez hainbeste Espainia osoan. Horregatik neurri bakoa iruditzen zait Aznarren erantzuna. Hemen gertatzen den guztia interes jakin batzuetarako erabiltzen du PPk Espainian. Hauteskundeetarako, ondo datorkio Euskadiko nazionalistekin liskarretan ibiltzea.

**Eta PPk Espainian dituen interes elektoral horiek PSOEren eta PSE-EEren politika baldintzatzen duela ez duzu uste?**

Ez, ez, ez. Pastoralaren kontuan, esaterako, beste modu bateko kritika egin dugu sozialistok, askoz ere kritika lasaiagoa. Azkenean, pastoralak, herri guztia batu beharrean, zatitu egin duela uste dut. Horixe da guk pastoralari egiten diogun kritika. Gotzainen pastorala eta PPk kontu honetan erakutsi duen jarrera kritikatzen dugu. Eskuak aske ditugu nahi duguna esan eta egiteko, betiere arduraz jokatuz. Politika antiterroristari dagokionez, PPrekin bat gatoz, baina beste hainbat eta hainbat kontutan sozialistok aurka izango gaituzte popularrek.

**Batasuna legez kanpo uzteak ezer konponduko du edo arazoa konpontzen lagunduko du?**

Neurri politikoak hartzen direnean edo legeak egiten direnean, neurri edo lege horrek izango duen eraginaz edo ondorioez jarduten dugu. Alderdien Legeak arazoa ez du konponduko, baina konponbidera hurbilduko gaitu. Alderdi politikoak talde pribilegiatuak dira demokrazian: telebistan doaneko tarteak eskaintzen zaie, dirulaguntzak ematen zaizkie… Beraz, demokraziak eskaintzen dituen errekurtso bereziak demokraziaren aurka egiteko erabiltzea ez da zilegi.

**Demokraziaren aurkako neurria ez da alderdi politiko bat legez kanpo uztea?**

Kontu bat da delitu bat egitea. Hori gizabanakoak egiten du eta kode penalean araututa dago horri dagokion zigorra. Beste kontu bat dira demokraziaren aurka doazen jokabideak. Nire ustez, demokraziaren aurka doazen talde politikoek ezin dezakete demokraziaren babesik eta saririk jaso. Onartuko genuke, esaterako, atzerritar guztiak esklabo izan beharko liratekeela aldarrikatuko lukeen talde politikorik, edo giza eskubideak zapaltzea aldarrikatuko lukeen talde politikorik? Ez, ezta? Horrelako ideiak eta jokabideak defenditzen dituen talde politiko bat ezin daiteke demokraziak alderdi politikoei eskaintzen dien laguntzez baliatu. Beste kontu bat da pertsona batek izan dezakeen ideologia.

**Oraintsu Arrasateko sozialistek kaleratutako agirian, besteak beste, azken osoko bilkuran jendearen partetik irainak jaso zenituztela diozue. Batasuna legez kanpo uzteak horrelako egoerak ez ditu larrituko?**

Zer esango dizut, bada. Hemengo sozialistak eta beste hainbat herritar bizkartzainekin bizi izaten ohitu gara, etengabeko mehatxupean bizi gara eta urteak daramatzagu horrela. Hori baino egoera larriago edo jasanezinagorik bada? Hemen badago jende bat ohitua dagoena bere ikuspuntuak indarkeria erabiliz defenditzen. Jende horrek Franco hil zenez geroztik erabili du jokabide hori, uste duelako bere egitasmo politikoa indarkeria erabiliz bakarrik lor dezakeela.

**Espainiako gobernuari lehen greba orokorra egingo zaio datorren astean. PPren gobernuaren gainbeheraren hasiera izan daiteke?**

Hori asko esatea izango litzateke. Edozelan ere, erabateko gehiengoa duenetik hona, bere benetako aurpegia erakutsi du PPk eta den modukoa agertu zaigu: eskumako alderdi politikoa. Ekonomia neoliberal gogorraren alde dihardu, jarrera autoritarioa erakusten du, gizabanakoen eskubide demokratikoak urratzen ditu… Sindikatuen eskubideen aurka egin du orain, Langabeziaren Legearekin. Lotsagarria da erabili duen jokaera, sindikatuen eskubideak urratzen dihardulako.



XABI URZELAI

## "Autodeterminatzen gara bozkatzera goazen bakoitzean"

**Ibarretxek sarritan esan du euskaldunok erabakiko dugula etorkizunean izan nahi duguna. Zer deritzozu?**

Euskaldunok bozkatzera goazen bakoitzean erabakitzen dugu zer izan nahi dugun eta zer egin nahi dugun. Hauteskundeetan alderdi politiko bakoitzak bere egitaraua aurkezten du. EAJ-EA koalizioak subiranotasunaren aldeko egitaraua aurkeztu zuen azken hauteskundeetan. Hortaz, EAJ-EAri botoa eman ziotenek bide hori aukeratu dute. Esan daiteke herritarrek autodeterminazio eskubidea erabiltzen dutela botoa ematen duten bakoitzean.

**Orduan, esan genezake EAJ-EAk irabazi zuenez eta autodeterminazio eskubidea aldarrikatu zuenez, herri honen gehiengoak hori nahi duela?**

Gobernuan dagoenak ikusi behar du hauteskundeetan aurkeztutako egitarau guztia aurrera atera dezakeen edo ez. Batzuetan, hori ez da posible izaten. Nire ustez, Euskadi independente batek ez lioke onik ekarriko hemengo herritarrei. Horregatik nago independentziaren aurka. Gobernuan dagoenak populazio osoarendako gobernatu behar duela jakin behar du uneoro, hau da, erabaki batzuk herriaren zatiketa ekar dezaketela.

# Debagoieneko triatletak, bikain

## Hamarren barruan Antxintxika-Debagoiena taldeko hiru lagun izan ziren

Hektor Llanosek irabazi zuen zapatuan Urkulun eta Arrasaten jokatutako Debagoieneko II. Triatloia. Emakumezkoetan, berriz, Paqui Márquez nagusitu zen. Guztira, 152 triatleta izan ziren irteeran eta honako distantziak bete behar izan zituzten: 1.500 metro igerian, 40 kilometro bizikletan eta 10 kilometro korrika.

Sidneyko olinpiadetan izan zen Llanos gasteiztarrak zazpi segundoren aldea besterik ez zion atera Jon Aperribai arrasatearrari. Antxintxika Debagoiena taldeko hiru lagun izan ziren lehen hamarren barruan, Zuhaitz Ezpeleta bedoñarra laugarren eta Ricardo De Goñi bergararra hamargarren sailkatu ziren-eta. Jarraian Aitor Larrea antzuolarra (11. postuan), Unai Pedregal oñatiarra (12.) eta Julen Garitano antzuolarra (13.) heldu ziren. Taldeka bigarren postua lortu zuen Antxintxikak, Atlético San Sebastian taldearen atzetik.

Emakumezkoetan, esan bezala, Paqui Márquezek lortu zuen garaipena (2:29:09) eta Virginia Rubio bergararrak, Debagoieneko ordezkari bakarrak, 2:59:25eko denbora egin zuen.

EDU MENDIBIL

### Sailkapena

| | | |
|---|---|---|
| 1. | 1: 59: 58 | LLANOS BURGUERA, HEKTOR |
| 2. | 2: 01: 05 | APERRIBAI URIBEETXEBARRIA, JON |
| 3. | 2: 01: 38 | ETXEBESTE ARRIETA, GARIKOITZ |
| 4. | 2: 04: 27 | EZPELETA ITURBE, ZUHAITZ |
| 5. | 2: 04: 52 | TEJERIA AIZPURUA, AITOR |
| 6. | 2: 04: 53 | ROZAS OSINAGA, IKER |
| 7. | 2: 05: 28 | TOBAR ORTIZ DE URBINA, CIRO |
| 8. | 2: 05: 29 | ZUMETA ZANBORAN, ENEKO |
| 9. | 2: 06: 18 | GARIJO GOMEZ, LUIS- MIGUEL |
| 10. | 2: 07: 13 | DE GOÑI RIPA, RICARDO |
| 11. | 2: 07: 14 | LARREA SORALUZE, AITOR |
| 12. | 2: 07: 20 | PEDREGAL MARTIN, UNAI |
| 13. | 2: 07: 24 | GARITANO ALUSTIZA, JULEN |
| 14. | 2: 07: 27 | YEREGI CALAHORRA, INGE |
| 15. | 2: 07: 46 | ALBERDI MUJIKA, UNAI |
| 16. | 2: 08: 40 | ALTUNA MARTINEZ, IÑIGO |
| 17. | 2: 08: 47 | ALBERDI RODRIGUEZ, AITOR |
| 18. | 2: 09: 37 | GOENAGA BALENZIAGA, BITTOR |
| 19. | 2: 10: 03 | SAIZ ARTOLA, IGOR |
| 20. | 2: 10: 29 | MONTOIA ANDRES, IÑIGO |
| 21. | 2: 10: 35 | MENDIA ZUFIRIA, ETOR |
| 22. | 2: 10: 36 | MUJIKA IZAGIRRE, JOSE |
| 23. | 2: 11: 47 | SAIZ ARTOLA, IKER |
| 24. | 2: 12: 01 | RUIZ DE INFANTE G. DE ALBEÑIZ, M. |
| 25. | 2: 12: 09 | GONZALEZ GETE, IMANOL |
| 26. | 2: 12: 10 | AZPILLAGA GARCIA, BORJA |
| 27. | 2: 12: 12 | REMENTERIA GANTXEGI, AITOR |
| 28. | 2: 12: 26 | MARQUET IMAZ, JON |
| 29. | 2: 12: 34 | ORMAZABAL AZPIROZ, JOSEBA |
| 30. | 2: 13: 11 | BENGOA ANZA, UNAI |
| 31. | 2: 13: 33 | BALEZTENA ZUBIKARAI, CARLOS |
| 32. | 2: 13: 49 | MADARIAGA BILBAO, JOSEBA |
| 33. | 2: 13: 50 | FERNANDEZ ELEJALDE, JAVIER |
| 34. | 2: 13: 51 | UZKUDUN ASTIAZARAN, GARIKOITZ |
| 35. | 2: 13: 52 | AGIRREZABALAGA MEABE, PAULO |
| 36. | 2: 14: 14 | KORTABARRIA IÑARRA, ARITZ |
| 37. | 2: 14: 37 | ILLARRAMENDI SAGARNA, ANDONI |
| 38. | 2: 14: 54 | ZABALETA URBIZU, AITOR |
| 39. | 2: 15: 04 | ARREGI ZUBIMENDI, AITZOL |
| 40. | 2: 15: 19 | OLANO MANZANO, ANDONI |
| 41. | 2: 16: 40 | ZALAKAIN ERBITI, EGOITZ |
| 42. | 2: 17: 20 | MUÑOZ DE LA TORRE, SERGIO |
| 43. | 2: 17: 42 | SANZ GARCIA, JULIAN |
| 44. | 2: 18: 02 | AZKARGORTA PRADERA, GAIZKA |
| 45. | 2: 18: 45 | MENDIA URANGA, ASIER |
| 46. | 2: 18: 57 | OSA AZPILLAGA, MIKEL |
| 47. | 2: 18: 59 | ODRIOZOLA ZABALETA, JOSU |
| 48. | 2: 19: 08 | ELOSEGI INSAUSTI, JON |
| 49. | 2: 19: 34 | CORDERO DIEGO, JOSE LUIS |
| 50. | 2: 20: 14 | PLAZA MADARIETA, JON |
| 51. | 2: 20: 24 | ASTIAZARAN DE MIGUEL, ANDONI |
| 52. | 2: 20: 26 | ULAZIA ARAMENDI, JON |
| 53. | 2: 20: 27 | LOZANO CEBRONES, JAVIER |
| 54. | 2: 21: 14 | ETXEBARRIA GUTIERREZ, OIER |
| 55. | 2: 21: 19 | JOLY, LIONEL |
| 56. | 2: 21: 42 | AIZPURUA URKOLA, IÑAKI |
| 57. | 2: 21: 43 | ASTILLAGA EIZAGUI, IAROVIT |
| 58. | 2: 21: 46 | MENDIZABAL LARRAÑAGA, GOTZON |
| 59. | 2: 22: 44 | GRAY, RICHARD |
| 60. | 2: 23: 01 | SOTIL MAIZTEGI, AITOR |
| 61. | 2: 23: 02 | BILBAO LOPATEGI, GAIZKA |
| 62. | 2: 23: 03 | CANTERO PERIANES, JESUS |
| 63. | 2: 23: 44 | INSAUSTI LASA, MIKEL |
| 64. | 2: 23: 45 | ALTUNA VEGAS, JOSE RAMON |
| 65. | 2: 24: 24 | UGARTE CANO, JOSE XABIER |
| 66. | 2: 24: 32 | IZAGIRRE ALTUNA, JOSU |
| 67. | 2: 24: 40 | URIBESALGO BIKUÑA, XABIER |
| 68. | 2: 24: 57 | KEREJETA AREIZAGA, ANDER |
| 69. | 2: 25: 01 | MANZISIDOR ARRUTI, IGON |
| 70. | 2: 25: 14 | PELAYO ALONSO, JOSE IGNACIO |
| 71. | 2: 25: 17 | KARRERA AKUTAIN, XABIER |
| 72. | 2: 25: 19 | ARANGUREN BERASALUZE, MANUEL |
| 73. | 2: 25: 20 | ARRIETA GOROSTIAGA, UNAI |
| 74. | 2: 25: 34 | JIMENEZ BENITO, ZIGOR |
| 75. | 2: 26: 00 | ZABALO LOPEZ, DANIEL |
| 76. | 2: 26: 30 | LIGERO ORTIZ DE ARTIÑANO, GUSTAVO |
| 77. | 2: 26: 32 | GIL FERNANDEZ, ISMAEL |
| 78. | 2: 27: 01 | LAZKANO PEREZ, ESTEBAN |
| 79. | 2: 27: 37 | BASTERRIKA PRIETO, IKER |
| 80. | 2: 28: 33 | FERNANDEZ ARENAS, CELESTINO |
| 81. | 2: 28: 40 | IRURZUN RAZQUIN, JOSEBA |
| 82. | 2: 28: 41 | MIKEO GUENBE, JOSE IGNACIO |
| 83. | 2: 28: 43 | LASKURAIN ZUBIA, AITOR |
| 84. | 2: 28: 51 | VAL GARASA, JAVIER |
| 85. | 2: 29: 06 | MARQUEZ PARADA, PAQUI |
| 86. | 2: 30: 03 | ELORRIAGA LLANOS, JOSU |
| 87. | 2: 30: 17 | BODEGAS PRIETO, PILI |
| 88. | 2: 30: 32 | AIZPIOLEA IRADI, XABAT |
| 89. | 2: 30: 59 | FERNANDEZ VILLATE, ALFREDO |
| 90. | 2: 31: 07 | ESCRIBANO LAFUENTE, JOSE IGNACIO |
| 91. | 2: 31: 17 | ZUGASTI TESO, FELIX |
| 92. | 2: 31: 19 | GOIRTA BARRUETABEÑA, GERMAN |
| 93. | 2: 32: 01 | GARAI DUO, JAVIER |
| 94. | 2: 32: 38 | FERNANDEZ PARRA, GORKA |
| 95. | 2: 33: 47 | OLAIZOLA ELORDI, XABIER |
| 96. | 2: 34: 09 | VENTOSO OLMO, IGOR |
| 97. | 2: 34: 24 | ITURBE AROZENA, ARITZ |
| 98. | 2: 34: 58 | LOPEZ ROMERO, MARIA GUADALUPE |
| 99. | 2: 35: 27 | SEMINARIO APESTEGUI, JUAN CARLOS |
| 100. | 2: 36: 09 | IPARRAGIRRE GARMENDIA, JON |
| 101. | 2: 37: 32 | OIANEDER BARANDIARAN, XABIER |
| 102. | 2: 38: 01 | RODRIGUEZ SERRANO, JUANJO |
| 103. | 2: 38: 04 | LAZKANO ARANA, IGOR |
| 104. | 2: 38: 44 | DIAZ OTXANDIANO, IBAN |
| 105. | 2: 39: 05 | BARRAINKUA SAGASTASOLOA, ASIER |
| 106. | 2: 39: 06 | SALABERRIA GARMENDIA, IGNACIO |
| 107. | 2: 39: 19 | VANIER, GREGORY |
| 108. | 2: 39: 31 | AZURMENDI ZELAIA, JUANTXO |
| 109. | 2: 39: 39 | AGIRRE HERRERIA, ALBERTO |
| 110. | 2: 40: 12 | ALKORTA ODRIOZOLA, JUAN IGNACIO |
| 111. | 2: 40: 33 | ARRIETA BELTRAN, NAROA |
| 112. | 2: 41: 18 | ALKORTA ODRIOZOLA, JORGE |
| 113. | 2: 41: 26 | ATXOTEGI ALEGRIA, URKO |
| 114. | 2: 41: 46 | URAIN, ZIGOR |
| 115. | 2: 42: 15 | MADARIAGA BILBAO, IBON . |
| 116. | 2: 43: 32 | ELIZALDE AZKUE, XABIER |
| 117. | 2: 45: 21 | RODRIGUEZ CALVI, J. IGNACIO |
| 118. | 2: 45: 29 | INTZIARTE SAMPERIO, LUIS |
| 119. | 2: 45: 30 | ARANBURU IRURETAGOIENA, JOSU |
| 120. | 2: 47: 09 | ZABARTE AJURIA, IKER |
| 121. | 2: 48: 00 | IZA MIGUEL, GORKA |
| 122. | 2: 48: 12 | GRAY CLARE, ANNE MARSHALL |
| 123. | 2: 48: 36 | MORAL, ASIER |
| 124. | 2: 48: 52 | EGILUZ ZUBIA, JON |
| 125. | 2: 49: 21 | BERASATEGI URRUTIKOETXEA, JAVIER |
| 126. | 2: 50: 18 | ORUNA ANDUAGA, GAIZKA |
| 127. | 2: 51: 12 | CAMUESCO ARRIETA, JOSU |
| 128. | 2: 51: 45 | GOMEZ GANTXEGI, JORDI |
| 129. | 2: 53: 18 | GARCIA MANGAS, ANGEL |
| 130. | 2: 54: 08 | LLODIO, JOSU JUAN |
| 131. | 2: 54: 14 | AGIRRETXE SAN SEBASTIAN, J. MARI |
| 132. | 2: 54: 33 | VILLEGAS CANALES, JAVIER |
| 133. | 2: 58: 52 | ZABARTE AJURIA, IKER |
| 134. | 2: 59: 25 | RUBIO GAMINDE, VIRGINIA |
| 135. | 3: 02: 38 | INSAUSTI MUGIKA, EIDER |
| 136. | 3: 17: 47 | LUZURIAGA MARTIN, ENRIQUE |

ATZOKO TXAPELDUNAK

## Unai Pedregal

### Igerilaria



Unaik Espainiako txapelketetan ere dominak lortu zituen.

**Hiru urtez Izarrako Zentroan jardun zuen.**

**200 eta 400 estiloetan nabarmendu zen.**

**Oñatiko Triatloi Taldean ari da gaur.**

Debagoieneko igerilaririk onenetakoa izan da Unai Pedregal. Hamahiru urterekin hasi zen Aloña Mendi Igeri Taldean, Xabier Infante "Artza" ezagunaren esanetara. Bizkar estiloan nabarmendu zen berehala eta, Euskadiko Federazioak emandako beka bati esker, Izarrako Errendimendu Altuko Zentroan hiru urte eman zituen, 1989tik 1992era hain zuzen: "Hogei bat igerilari geunden Izarran, Euskal Herriko puntakoenak, eta egunero 6 bat orduz entrenatzen genueen, igerilekua eta gimnasioa tartekatuz. Igerian 15 bat kilometro egiten genituen egunero. Han, bizkarrekoaz gain, beste estiloak hobetzeko aukera izan nuen, Tomas Isturiz eta Luis Villanueva entrenatzaileekin". Unaik 200 eta 400 estiloetako probetan emaitza bikainak lortu zituen: bi aldiz bigarren izan zen Espainiako txapelketan eta beste 3 aldiz brontzezko domina lortu zuen. Igerilarien ibilbidea ez da luzea izaten eta 18 urterekin konpetitzeari utzi zion Unaik: "Nahiko saturatuta nengoen ordurako eta igeriketa utzi eta Ingeniaritza ikasten hasi nintzen, Arrasaten. Izarran emandako urteak oso onak izan ziren, gure artean ere oso giro ona zegoelako. Hala ere, neketsua egiten da egunero hainbeste orduz uretan entrenatzea".

Gaur egun Oñatiko Triatloi Taldeko kidea da Unai. Igeriketan, nola ez, primeran moldatzen da eta bizikletan eta korrikan ere ondo dabil. Debagoieneko II. Triatloian 12. postua eskuratu zuen zapatuan. /E. M.



*"Izarran 15 bat Km. egiten genituen egunero igerian"*

Unai Pedregal • Oñati • 1974

BABESLEA

VENTANAS SAN MIGUEL

Iturriotz, 24 • 20500 ARRASATE
Tel.: **943 79 78 10**

Ibargarai, 4 • 20570 BERGARA
Tel.: **943 76 12 21**

**Debagoieneko Kirol Zerbitzuen berriak**

# Edadetuendako XII. Kirol Jaia izan zen Antzuolan

Debagoieneko Kirol Zerbitzuek antolatuta, Edadetuendako XII. Kirol Jaia ospatu zuten Antzuolan joan den egubakoitzean, ekainaren 7an. Guztira, Debagoieneko 500 bat erretiratuk hartu zuten parte kirol jai horretan. Partaide guztiek argi utzi zuten sasoi onean daudela eta umorea ere galanta daukatela. Euria egin zuenez, jarduerak Antzuolako pilotalekuan, Olaran etxean eta ikastetxean izan ziren: aerobika, uztai-jokoa, badmintona, dantzak eta beste hainbat. Debagoieneko Kirol Zerbitzuek Antzuolako erretiratuen laguntza eskertu nahi dute.



Partaideek sasoi ezin hobean daudela erakutsi zuten.



Emakumeak nagusi izan ziren. Argazkian, emakume talde bat uztai-jokoan.



Antzuolako pilotalekuan ibarreko 500 bat erretiratu batu ziren egubakoitzean.

**Kirolabur**

## PILOTA/BERGARA

Bergara Hiria Txapelketako finalak jokatuko dituzte martitzenean, hilaren 18an, Udal Pilotalekuan, 19:30ean. Promesetan, Olaetxea-Irureta eta Lasa-Zubieta bikoteak izango dira aurrez aurre eta amateur mailan, Huizi-Gutiérrez eta Sorarrain-Báez bikoteen artean erabakiko da txapelduna. Gutiérrez bergararrak profesionaletan debuta egin berri duen Laskurain plazentziarra ordezkatuko du finalean.

## ZIKLISMOA/ELGETA

Bihar, zapatua, Emakumeen Birako etapa jokatuko da Elgetan. Bigarren etapako erlojukontrako sektorea Elorrio eta Elgeta artean jokatuko da, arratsaldean. Hortaz, bidea itxita egongo da ibilgailuendako. Leontien Van Moosel eta Joane Somarriba azken bi urteetako Birako irabazleak izango dira Elgetan.

## ZIKLISMOA/IRIZAR

Markel Irizar txirrindulari oñatiarrak (Olarra-Consultec) Gipuzkoako erlojuz kontrako txapelketa irabazi zuen eguaztenean, Alegian. Iaz bezala, Irizar 23 urtetik azpikoen mailan nagusitu zen. Asier Atxa aretxabaletarra (Olarra-Consultec) 6.a izan zen kategoria berean.




DENA
0,60 €tan
100 pta.tan
EROSKi
Erosten jakin
Balizko eskaintza ekainaren 20tik 26ra.

# Goienka2a

Egubakoitza / 2002ko ekainaren 14a

Kultura eta aisialdia

Ekainaren 14tik 21era



# Edertasuna ebakuntza-gelan?

Guztiok gabiltza gorputz lirain eta ederraren bila. Horretarako, bide asko daude: batzuk gimnasiora joaten dira; beste batzuek argaltzeko dietak egiten dituzte; asko estetika etxeetara joaten dira, tratamendu bila…

Edozelan ere, gorputz polita lortzerainoko eta gure itxurarekiko onarpen osoraino daraman bidearen azken urratsa, estetika ebakuntzak egitea, gero eta debagoiendar gehiagok ematen dute. Emakumeak dira pauso hori ematen duten gehienak, baina gizonezkoak ere, euren itxuragatik gero eta arduratuago daudenez, animatzen dira ebakuntzak egitera. Mota horretako ebakuntzak egiten dituen osasun zentrorik ez dugu Debagoienean; hala ere, hemengo hainbat estetika zentrok zirujau estetiko batekin kontsulta egiteko aukera eskaintzen dute, hilean behin, normalean.

Kirurgia estetikoan pentsatzen dugunean, askotan, telebistan eta aldizkarietan ikusten ditugun pertsonaia famatuak datozkigu burura. Baina adituen esanetan, errealitatea oso bestelakoa da: ibarrekook badakigu zertara goazen ebakuntza-gelara, eta ez diogu bisturiari merezi duen errespetua galtzen. Zirujauen esanetan, hainbat komunikabidetan agertzen diren famatuen kasuak salbuespenak dira. Edertzeko bideratuta dagoen kirurgia mota hau, hortaz, debagoiendarrok gero eta normaltasun gehiagoz hartzen dugula dirudi. /L. KORTABARRIA

AZALA: GOIO ARANA / ARGAZKIA: IMAGE 100 LTD

OSASUNA/ **DEBAGOIENDARROK ERE GERO ETA GEHIAGO EGITEN DITUGU ESTETIKA EBAKUNTZAK**

# Bisturia, gure gorputzaren zizela?

OPERATZEN DIREN DEBAGOIENDAR GEHIENEK ARAZO EDO KONPLEXU JAKIN BAT KONPONTZEKO BAKARRIK EGITEN DUTE AUKERA HORI

**Norberaren irudia zaintzea eguneroko kontua da, eta guztioi eragiten digu; jendeak bere burua zaindu eta ondo ikusi gura du, eta operatzea horretarako bide bat da". Horrela diosku aditu batek, Ramon Aginaga zirujau estetikoak. Debagoiendarrok ez gara salbuespena.**



Zirujauek diote ondo zaintzeko non eta zeinek egiten dituen ebakuntzak.

Debagoienean bertan ez dago ebakuntza estetikoak egiten dituen klinikarik, baina ibarrean ere badago tratamendu mota horren eskakizuna. Estetika zentro batzuek, hilean behin, zirujau estetiko baten kontsulta eskaintzen dute, eta, zentroetako arduradunen esanetan, zerbitzuak oso harrera ona du. "Gehien, 30etik 50 urte bitarteko emakumeak etortzen dira", esaten dute arduradunek. Hala ere, 18 urteko gazte bakarren batzuk ere inguratzen dira. Bestalde, horietatik %90 emakumeak dira, baina operatzea erabakitzen duten gizonezkoen kopurua urterik urte haziz doa, doktoreen esanetan.

Baina, gure gorputzeko zein atal hobetu nahi izaten dugu debagoiendarrok?

**EBAKUNTZA MOTAK**

Ebakuntza motari dagokionez, ibarrekook ez gara bat ere originalak: gehienek, koipeak kentzeko liposukzioa aukeratzen dute, "izan ere, zelulitisa oso arazo hedatua da, eta liposukzioa da behin betiko tratamendu bakarra", diosku Ramon Aginaga doktoreak. Bigarren postuan, bularrak handitu edo jasotzeko ebakuntza eskatzen da gehien; eta begi azpiko poltsak kentzeko operazioa dator jarraian. "Edozelan ere, tratamendu guztietarako ez da beharrezkoa operazio-gelatik pasatzea. Kontsultan egin daitezkeen tratamenduen artean, aurpegiko zimurrak leuntzeko eta orbanak kentzeko, eta ezpainak puzteko operazioak dira gehien eskatzen direnak", dio Aginaga doktoreak. Aginagak azpimarratzen duenez, baina, "estetikak gure buruarekin ondo senti arazteko teknika asko ditu, eta kirurgia horietatik bat baino ez da".

LEIRE KORTABARRIA

**RAMÓN AGINAGA** / ZIRUJAU ESTETIKOA

## *"Operatzea ez da moda bihurtu: uste faltsua da"*



**Espainiako Kirurgia Estetikoko Elkarteko kide numerarioa da Ramón Aginaga doktorea. Orain dela hogei urtetik egiten ditu estetika operazioak. Debagoienean kontsulta pasatzen du, eta Indautxuko eta Pilareko Amako ospitaletan egiten ditu ebakuntzak.**

**Zein motatako ebakuntzak eskatzen ditu jendeak adinaren arabera?**

Operazio batzuk nerabezarotik aurrera egin daitezke: adibidez, belarri irtenak disimulatzekoa. Liposukzioa ere 18tik aurrera egin daiteke, baina ez da ohikoena; normalean, ebakuntza mota bakoitzeko, adin tarte jakin bat izaten da. Bularretako ebakuntza, adibidez, ama izan diren 30-40 urte arteko emakumeek egiten dute batik bat.

**Operatzea moda da orain?**

Hori uste faltsua da. Orain ez dira orain dela 12 urte baino operazio gehiago egiten. Bestalde, behin baino gehiagotan operatu direnak, izatekotan, oso bakanak dira. Normalean, niregana datorren pertsonak arazo jakin bat du, eta hori konpondu nahi du. Nahi duena jaso ondoren, normalean ez da berriro operazio-gelatik pasatzen.Telebistanеta ikusten ditugun kasuak ez dira eguneroko bizitzan gertatzen.

**Baina kirurgia ez da oso arin hartzen gaur egun?**

Beti izan dira mugaz bestalde pasatzen direnak, baina oso gutxi dira. Nik neuk, hogei urteotan, ez dut inor hiru aldiz operatu.

**Zer diozu legez kanpoko kliniken gainean?**

Euskadin, osasun arloa oso ondo zaintzen da, eta horrelako kasurik ez da hemen gertatzen.



## Koipea ezabatu

Liposukzioa da estetika ebakuntzen erregina. Gorputzeko hainbat ataletan –besoak, lepoa, sabela, bizkarra, aldakak, ipurdia, belaunak eta zangoak– dauden koipe multzoak kentzen dira. 900 eta 1.800 euro bitartean kostatzen da. Emaitzak oso onak izaten dira, eta ia ez du orbainik uzten.



## Bularreko ebakuntza

Bi gauza eskatzen dituzte debagoiendarrek: edo bularra handitzea, edo eroritako bularrak jasotzea. Hainbat komunikabidetan entzuten eta ikusten denaren alderantziz, tamaina egokia aukeratuz gero, inplanteak ez dira nabarmentzen. Ama izan diren emakumeek bularra jasotzea ere eskatu ohi dute.



## Begietako poltsak

Batik bat, 30etik 40 urtera bitartean agertzen dira begi azpiko poltsa antiestetiko horiek. Ebakuntza egiteko, ez da beharrezkoa ospitaleratzea. Ordu erditik ordubetera inguru iraun dezake ebakuntzak, eta egunean bertan bueltatzen da etxera operatutako pertsona. Emaitzak oso onak izaten dira.



## Sudur ederragoa

Musuarekiko, proportzioz kanpoko sudurra dutela uste dutenek eskatzen dute ebakuntza; normalean, txikiagotzeko. Sudur barrutik egiten da ebakuntza; hortaz, ez du arrastorik uzten. Operatu ondoren, hiruzpalau egunez, hainbat eragozpen izaten dira, baina astebetera, jendaurrean ager daiteke.



## Zimurrak leundu

Hau ere dezente egiten dute ibarrekook. Ilea hazten den lekutik azala jaso, gorantz tiratu, sobratzen dena ebaki eta berriro jostea da. Astebete ondoren, makillajea ipini eta ilea garbitu ahal izango duzu. Operazioaren bidez, benetako adina baino hamar bat urte gazteagoaren itxura lor daiteke.



## Ezpainak puztu

Kontsultan egin daiteke, ospitaleratzeko premia barik. Bi metodo daude: bata, ezpainak betetzeko produktuak injekzio bidez sartzea da. Normalean, bi sesiorekin aski izaten da nahi den itxura lortzeko. Kirurgia aukeratuta, behin betiko emaitzak lortuko dira. Orbain txiki bat uzten du, baina ez da ia nabaritzen.

**MUSIKA/ URRETXINDORRAK TALDEAREN BOST ABESTI CD BATEN**

# Urretxindorrak, txio-txioka

## BERGARAKO TALDEAK BOST KANTU GRABATU DITU BERRIRO ERE, HORIETAKO LAU, INOIZ GRABATU BAKOAK

**Urretxindorrak taldeak, 60ko eta 70eko hamarkadetan euskal kantagintzan ospe handia lortu zuen laukote bergararrak, bost abesti grabatu ditu. Urtetan diskorik grabatu barik egon ostean, Bergarako Gure Ametsa elkarteak argitaratuko duen disko konpaktuan batu ditu bost abesti. Horietako lau, inoiz grabatu bakoak.**


Orain dela 35 urte, euskal kantagintzako izarrak izan ziren Urretxindorrak taldekoak.

Gure Ametsa Elkartekoek bihar, zapatua, aurkeztuko dute diskoa elkartean bertan, San Antonio auzoan. Urretxindorrak taldearen bost abestiez gain, Bergarako Udal Txistulari Bandaren beste sei pieza ere biltzen dira CDan, horietako bat, diskoa zabaltzen duena, Gure Ametsa elkartearen ereserkia, Ramon Etxanizek egina. Urretxindorrak taldeak ere eskaini dio abesti bat elkarteari. Diskoak ez du zabalkunde handirik izango, 100 bat ale kaleratu dituzte-eta. Batik bat, elkarteko bazkideen artean banatuko dute eta 1.000 pezetan salduko da. Jendeak hala eskatuz gero, gehiago argitaratuko lituzkete.

### BERRIRO ERE TAULARA?

Urretxindorrak taldea 1966an sortu zuten lau bergararrek: Raul Calvok, Julio Unamunok, Juan Mari Narvaezek eta Gotzon Bikuñak. 1972ra arte ibili ziren plazarik plaza Euskal Herrian zehar, inguru honetan eta Bizkai aldean, batez ere. 30 urte badira taldeari utzi ziotela, baina noizbehinka elkartu izan dira. 1991ean, esaterako, Kilometroak Bergaran izan zenean, berriro ere taula gainean ikusteko aukera izan genuen. Harrezkero, ETBko hainbat saiotan ere egon izan dira. Oraingoan, ez dute zuzenean aritzeko asmorik, baina Gure Ametsakoek hala eskatuta, disko berezi horretan parte hartu nahi izan dute.

*Gure Ametsa, Natalia, Zeruan zehar, Poeta mutua* eta *Herri gaixoa* dira diskorako bildu dituzten bost abestiak. Abesti ezagunak guztiak, zuzenean sarri abestutakoak, baina inoiz grabatu bakoak. Abestion musika Raul Calvorena da eta hitzak, Xabier Oregi *Pantirena* lehenengoa, Xabier Azurmendirenak beste hiru eta Julio Unamunorena *Herri gaixoa*.

### 'AITORREN HIZKUNTZA ZAHARRA'

Gazte askori ezezagun egingo zaio Urretxindorrak, baina orain dela 30-35 urte sekulako ospea izan zuten Euskal Herrian. Zaleak ere ugari izan zituzten eta miresmen gutun piloa jasotzen zituzten. Sasoi hartan oso gutxi ziren euskaraz abesten zuten taldeak, abesbatzetatik aparte. Bost disko txiki grabatu zituzten 1967tik 1972ra bitartean. Madrilen grabatu zituzten diskook. *Aitorren hizkuntza zaharra*, *Iguriako bolua* eta beste hainbat, euskarazko abestien zerrendaren buruan egon ziren. *Aitorren hizkuntza zaharra* diskotik, esaterako, 30.000 kopia saldu zituzten.

ENEKO AZKARATE

**NIREAUKERA**




**'NEVERMIND'**
**Nirvana**

**Disko bikain asko argitaratu izan dira, baina niretako, onena, Nirvana taldearen disko hau da. Argitaratu zenean, 1991.ean, oso-oso esanguratsua izan zen niretako, eta orain beste musika estilo bat lantzen badut ere, diskoa oso gustuko dut eta entzuten jarraitzen dut. *Smells like Teen Spirit* famatua, *Come as you are* edo *Stay away* -oso balada leuna, barru-barruraino sartzen zaizun horietakoa- nabarmenduko nituzke diskotik. Gitarrak ere asko gustatzen zaizkit lan honetatik. Bestalde, Kurt Cobain mito bihurtu da, eta *Nevermind*-en, bere onenean agertzen zaigu.** /L.K.



**DJ**
**Kirrin**

Disko jartzaile oñatiarra. Itzela dantzalekuko DJ lehiaketako finala jokatuko du.

**KALERATUBERRIAK/ Iban Arantzabal**

**LIBURUA /** Nobela




**ODOLBILDUA**

**Josu Landa**
Susa Narratiba
174 orrialde

Josu Landaren lehen nobela. Beharbada, batzuendako ezaguna izango da, hainbat saltsatan ibili delako eta lehendik ere poesia liburu bat argitaratua duelako: *Haizearen Itzalak*.

Makina bat euri egin du poesia 1980an idatzi zuenetik hona. Harrezkero, ez du ezer argitaratu eta orain, nobela batekin dator. Josu Landaren lehenengo nobelako hariak 50eko urteetan korapilatzen dira, Nerbioi ibaiaren baztetetan, azpijoko makur eta ia zuri-beltzezko irudiez. Interneten ere badago liburua, osoosorik, Susaren gunean: *www.susa-literatura.com*.

**LIBURUA /** Nobela




**XAKE MATE**

**Alberto Ladron Arana**
Elkar
125 orrialde

Nobela laburrendako Agustin Zubikarai I. saria irabazi duen lan horrek II. Mundu Gerraren osteko Alemaniara garamatza; han bizi da pertsonaia nagusia eta kontalaria: mutiko bakarti bat, gerra-komisarietan hanka bat galdu eta gurpil-aulki baten dabilena. Izaeraz isila eta lotsatia, ez du interesik ez erraztasunik bere adinkideekin harremanetan jartzeko, eta xake-jokoan bilatuko du beharrezko aterpea. Hala, xakea bihurtuko du ez bakarrik denbora-pasa, baizik eta mundua ulertzeko modu eta geroxeago baita borrokarako eskola ere.

**DISKOA /** Hard-rocka



**BORROKAN**

**Borrokan**
Autoprodukzioa
10 kantu

Berako aduanan grabatutako lana da. Diseinu zaindua, *digi-pack* formatuan... Diseinu interesgarriaz gain, eduki berritzailea.

Begi bat Washingtonen eta bestea Chicago aldean kokatuta, *hardcore*-ari eta rockari bide berriak irekitzea izan du helburu hasieratik taldeak. 90eko hamarkadaren erdialdean sortu zen gaur egun boskote den taldea. 98an, *Museum* bilduman parte hartu zuten eta horixe izan zen Borrokan taldearen hasiera. Autoprodukzioa da, diskoetxeen eskaintzak izan dituzten arren. Meritu biderkatua. Pirateatu ezin daitekeen beste CD bat.

# Ekainak 14-21

Leire Kortabarria / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: kultura@goiena.com • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

## ANTZERKIA

### ARRASATE

► *Sexo, gordas y rock&roll* antzezlana jokatuko du MacRea komikoak gaur, egubakoitza, Jai Zale tabernan, 22:45ean.

### BERGARA

► *Plater konbinatua* antzezlana eskainiko du Interruptus taldeak datorren egubakoitzean, hilaren 21ean, gaztetxean, 22:30ean.

### OÑATI

► *Tengamos el sexo en paz* antzezlana eskainiko dute gaztelekuko antzerki tailerreko gazteek. Etzi izango da, domeka, institutuan, 19:00etan.

► Txotxongilo eta antzerki saioa antolatu ditu Elkar-Hezi ikastetxeak ekainaren 21erako. Herriko plazan izango da, 18:30etik aurrera.

## ERAKUSKETAK

### ANTZUOLA

► Margo ikastaroko ikasleen lanak ikusteko aukera izango da bihar eta etzi, Olaran etxean, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 20:30era.

### OÑATI

► Rockaren eta euskal rock radikalaren gaineko argazki erakusketa antolatu du Elkar Hezi ikastetxeak. Euren egoitzan eta herriko hainbat tabernatan ipiniko dituzte argazkiok. Ekainaren 28ra arte izango duzue ikusteko aukera.

## IKASTAROAK

### ARRASATE

► Ingurugiro ikastaroa antolatu du udalak ekainaren 14rako, 18rako eta 21erako, ingurugiro eskolan. Zaborrarekin zer egin, birziklatzea… landuko dituzte. Doan izango da. Argibide gehiagorako, jo gazte bulegora.

### BERGARA

► Seitik hamalaura urte artekoendako margo ikastaroa antolatu du Beart elkarteak uztaileko zapatu goizetarako. Izena emateko, deitu 615 75 60 19 edo 653 71 53 82 telefonoetara.

### DONOSTIA

► Zientzia museoak eta alfabetatze zientifikoa XXI. mendean izeneko ikastaroa antolatu dute Euskal Herriko Unibertsitateak eta Miramongo zientziaguneak. Uztailaren 15etik 19ra izango da, Donostian. Argibideetarako, deitu 943 21 95 11 telefonora edo idatzi cursosverano@sc.ehu.es helbidera.

### OÑATI

► EGA azterketa prestatzeko 100 orduko ikastaroa antolatu du udal euskaltegiak, ekainaren 24tik uztailaren 19ra eta irailaren 9tik 13ra. Izena emateko, jo euskaltegira edo deitu 943 78 24 96 telefonora. Ekainaren 21a da mugaeguna.

► Sukaldaritza begetariano ikastaroa izango da martitzen eta eguenetan. Izena emateko, deitu gaztelekura: 943 71 60 94.

## LEHIAKETAK

### ARETXABALETA

► Andramaixetako jaietako kartela aukeratzeko lehiaketa deitu du udalak. Argibideetarako, jo kultura etxera edo udaletxera. Mugaeguna ekainaren 23a izango da.

### DEBAGOIENA

► Leintz Gatzagako, Eskoriatzako eta Aretxabaletako berbetaren inguruko ikerketa linguistiko orokorra egiteko beka deialdia egin dute udalek. Argibideak, Gatzagako, Aretxabaletako edo Eskoriatzako udalean.

### OÑATI

► San Migel jaietako programaren azala aukeratzeko lehiaketa deitu du udalak. Mugaeguna uztailaren 19a izango da, eta irabazleak 250 euro jasoko ditu.

## DEIAK

### ANTZUOLA

► Gimnasia erritmikoa egiten duten neskatilek erakustaldia egingo dute eguaztenean, ekainaren 19an, frontoian, 17:00etan.

### ARETXABALETA

► Mongoliaren gaineko diaporama saioa eskainiko du Jose Ramon Agirrek eguenean, hilaren 20an, udaletxe zaharreko aretoan, 19:00etan.

### ARRASATE

► *Faxismoa gelditzeko, 19an, denok grebara* lelopean kale bilkura deitu du Batasunak ekainaren 18rako, 19:30ean, herriko plazan.

► LAB sindikatuak manifestazioa deitu du ekainaren 19rako, Seber Altuben, 19:00etan.

► Arizmendiko Haur Hezkuntzako ikasturte bukaera festa egingo dute Monterronen, ekainaren 19an.

► Industria museoa inauguratuko dute datorren egubakoitzean, ekainaren 21ean, Saiolanen.

### BERGARA

► Nafarroara irteera antolatu du San Joxepe elkarteak ekainaren 27rako. Interesatuek egoitzan eman beharko dute izena, hilaren 17a baino lehen.

► Jardun elkartearen Jolasleku Ibiltaria programaren hurrengo saioa hilaren 21ean izango da, parkean, 17:00etatik aurrera.

► *Vivienda: especulación & okupazioak* izeneko liburuaren aurkezpena izango da gaur, egubakoitza, gaztetxean, 19:00etan.

### DEBAGOIENA

► Eskualdeko manifestazioa deitu du LAB sindikatuak ekainaren 19rako, Bergaran, 12:00etatik aurrera.

### EUSKADI

► Kamera aurrean antzezpen




► ANTZERKIA

## 'HAU PARADEROA!', BOST LEKU, BOST EGOERA, LAU EMAKUME

Ezkontza agentzia batean, Marokoko aireportu bateko itxaron gela batean, ginekologoaren kontsultaren atarian, tanatorio batean eta Leidor antzokiko kamerino batean - horra hor non aurkituko ditugun 'Hau Paraderoa!' antzerki laneko protagonistak. Itxaroten dabiltzan hogei emakume aurkituko ditugu, lau egoera bakoitzean, eta esperoan dauden horiei espero ez dituztenak gertatuko zaizkie, bizitzan gertatu ohi den bezalaxe. Gorabehera horiek ikusteko eta aktore bikainen -Elena Irureta, Elixabete Elizondo, Aitzpea Goenaga eta Loly Astoreka- lanarekin gotzatzeko aukera bihar izango duzue, Elgetako Espaloia aretoan, 22:00etatik aurrera.

Non: Elgetako Espaloia aretoan. Noiz: Ekainaren 15ean, zapatua. Ordua: 22:00etan. Sarrera: doan.

koma,



UDAKO IKASTARO TRINKOAK

Alemaniera eta italiera

Talde txikiak (Gehienez, 6)

*Anima zaitez!*

Olakua 7 behea • 20560 OÑATI
943 71 82 08 • Posta-e: cursos@komalingua.com • www.komalingua.com

Donostiako enpresa batek ondoko lanpostua bete behar du:

KOMERTZIALA (73 erref.)

PUBLIZITATE SALMENTAn aritzeko DEBA ALDEAN

ESKAINTZEN DA:
- Lan kontratu laborala, Gizarte Segurantzarekin.
- **Soldata finko interesgarria** + Komisioa.
- Bezero zerrenda.
- Formakuntza, enpresaren kontu.

ESKATZEN DA:
- EUSKARAZ JAKITEA EZINBESTEKOA DA.
- Eskarmentua izatea antzeko lanetan.
- Komunikaziorako gaitasuna eta harremanetarako trebezia.
- Eskualdean bizitzea.
- Autoa izatea.

INTERESATUEK, CURRIKULUM ZEHATZA BIDALI ARGAZKI BERRI BATEKIN, EKAINAREN 19a BAINO LEHEN, HELBIDE HONETARA:

1887 Posta-kutxa / DONOSTIA



## TAV FALCOREN KONTZERTUA BERGARAN

AEBetako hegoaldeko bluesa eta rock'n'rolla bikain uztartzen ditu Tav Falco kantautoreak. Panther Burns bere taldearekin batera, Panter Phobia bere azken lana aurkeztuko du gaur, egubakoitza, 22:00etan, Jam aretoan. Snobs talde donostiarrak ere joko du.

**ikastaroa** antolatu du Pausokak. Uztailaren 1etik 12ra izango da. Argibideak: 943 29 71 11 telefonoan edo www.pausoka-eskola.com orrian.

# JAIAK

### ANTZUOLA

► **Kalebarrengo jaiak** ospatzen hasiko dira datorren egubakoitzean, hilaren 21ean. Bidusound dantzaleku ibiltaria izango da 22:30ean.

### ARRASATE

► ***Lurraren taupada*** kultura jardunaldiak izango dira domeka bitartean, herriko hainbat lekutan: Monterron parkean, Iamai kafetegian, Gazteluondo aretoan, udaletxean…

► **Umeen danborrada** izango da bihar, zapatua. Nafarroa Etorbidetik irtengo da, 19:00etan, eta plazan bukatuko dute.

### BERGARA

► **Gaztetxeak bi urte betetzen dituela-eta,** hainbat ekintza antolatu dituzte biharko. 12:00etan, gazteendako poteoa, gaztetxetik hasita; 14:30ean, bazkaria (txartelak gaztetxean, Arranon eta Pol-Polen daude salgai), eta ostean, mus, tute eta partxis lehiaketak; eta gauean, kontzertua.

### ESKORIATZA

► **Almeneko IV. Kirol Jaia** izango da bihar. 10:30etik aurrera, olinpiada txikia, puzgarriak, tailerrak, trialsin erakustaldia eta bazkaria izango dira.

# MUSIKA

### BERGARA

► **E.H. Sukarra taldeak *Galtzailearen Egunak*** diskoa aurkeztuko du gaur, gaztetxean, 22:30ean.

► **Obligaciones eta Dirty Jackets taldeen** emanaldia izango da bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean.

► **Hamlet eta Grass taldeek** kontzertua eskainiko dute bihar, zapatua, Jam aretoan, 22:00etan.

► **Anari**ren kontzertua izango da etzi, domeka, gaztetxean, 21:30ean.

# BIDEOA

### BERGARA

► **Film labur emanaldia** izango da etzi, domeka, gaztetxean, 19:00etan. Gero, Asier Altunak azalpen bat egingo du.

► **Gazte lokalaren aurkezpen bideoa** emitituko dute eguenean, hilaren 20an, gaztetxean, 19:00etan. Segidan, *Zer da gaztetxea?* gaiaren inguruko kafe-tertulia izango da.

# Zinema

### ARRASATE

■ ALAI ZINEMA

***Star Wars II: El ataque de los clones***
Egubakoitza: 19:00, 22:00.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:30.
Astelehena: 19:00, 22:00.
Martitzena, ik. eguna: 19:00, 22:00.

■ AMAIA ANTZOKIA

***Paréntesis***
***Sister, my sister***
Eguena, zinekluba: 21:30.

### BERGARA

■ NOVEDADES

***Rencor***
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ik. eguna: 19:30.

### OÑATI

■ SANTA ANA

***La habitación del pánico***
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

### EIBAR

■ UNZAGA

***Infiel***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

■ RIALTO

***Invicto***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

### GASTEIZ

■ GURIDI

***Infiel***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

***X***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

***Iris***
Egunero: 17:30, 22:30.

***Invicto***
Egunero: 20:00.

***Diario para un cuento***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

***El creyente***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

***40 días y 40 noches***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

***Star Wars II: El ataque de los clones***
Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.

■ MIKELDI ZINEMAK

***Mientras haya hombres***
Egunero: 17:30, 20:15, 22:45.

***Monstruos S.A.***
Zapatua eta domeka: 16:30, 18:30.

***Confesiones íntimas de una mujer***
Egunero: 17:30, 20:15, 22:45.

***40 días y 40 noches***
Egubakoitza: 17:30, 20:15, 22:45.
Zapatua eta domeka: 16:15, 18:15, 20:15, 22:45.

***Infiel***
Egunero: 17:30, 20:15, 22:45.

***Vivancos 3***
Egubakoitza: 17:30, 20:15, 22:45.
Zapatua eta domeka: 16:15, 18:15, 20:15, 22:45.

***Star Wars II: El ataque de los clones***
Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.

***El rey Escorpión***
Egubakoitza: 17:15, 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 20:30, 22:30.

***Peter Pan: regreso al país de Nunca Jamás***
Zapatua eta domeka: 16:30, 18:30.

***El gran lío***
Egubakoitza: 17:15, 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 20:30, 22:30.

***La última fortaleza***
Egunero: 17:15, 20:00, 22:30.
Martitzena, ikuslearen eguna.

■ FLORIDA-GURIDI

***La casa de mi vida***
Egubakoitza: 12:30, 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30.
Domeka: 12:30, 17:30, 20:00, 22:30.

***Un mal día lo tiene cualquiera***
Egunero: 17:30.

***Elling***
Egunero: 20:00, 22:30.

***Escape to paradise (J.B.A.)***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

***Mientras haya hombres***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

***El hombre que nunca estuvo allí***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

***Cosas que diría con sólo mirarla***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

***Rencor***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

■ STER ZINEMAK

***El creyente***
Egubakoitza: 18:20, 20:30, 22:40, 00:50.
Zapatua: 16:10, 18:20, 20:30, 22:40, 00:50.
Domeka: 16:10, 18:20, 20:30, 22:40.

***Infiel***
Egubakoitza eta zapatua: 17:25, 20:00, 22:35, 01:10.
Domeka: 17:25, 20:00, 22:35.

***Star Wars II: El ataque de los clones***
Egubakoitza: 18:55, 22:00, 00:50.
Zapatua: 16:00, 18:55, 22:00, 00:50.
Domeka: 16:00, 18:55, 22:00.

***Invicto***
Egubakoitza eta zapatua: 18:40, 20:40, 22:45, 00:45.
Domeka: 18:40, 20:40, 22:45.

***Jóvenes salvajes***
Egubakoitza: 18:00.
Zapatua eta domeka: 15:50, 18:00.

***No debes estar aquí***
Egubakoitza: 18:10, 20:20, 22:25, 00:30.
Zapatua: 16:05, 18:10, 20:20, 22:25, 00:30.
Domeka: 16:05, 18:10, 20:20, 22:25.

***Blade II***
Egubakoitza eta zapatua: 20:10, 22:40, 01:10.
Domeka: 20:10, 22:40.

***El rey Escorpión***
Egubakoitza: 20:05, 22:05, 00:05.
Zapatua: 18:00, 20:05, 22:05, 00:05.
Domeka: 18:00, 20:05, 22:05.

***Sesión 9***
Egubakoitza: 18:25, 20:35, 22:45, 00:55.
Zapatua: 16:15, 18:25, 20:35, 22:45, 00:55.
Domeka: 16:15, 18:25, 20:35, 22:45.

***Aventuras en Alaska***
Egubakoitza: 17:55.
Zapatua eta domeka: 15:45.

***La isla del cangrejo***
Zapatua eta domeka: 17:00.

***Érase una vez…***
Egubakoitza: 18:25, 20:15, 22:15, 00:15.
Zapatua: 16:15, 18:25, 20:15, 22:15, 00:15.
Domeka: 16:15, 18:25, 20:15, 22:15.

■ YELMO CINEPLEX

***Rencor***
Egubakoitza: 15:45, 18:10, 20:25, 22:35, 00:45.
Zapatua: 11:45, 15:45, 18:10, 20:25, 22:35, 00:45.
Domeka: 11:45, 15:45, 18:10, 20:25, 22:35.

***Pirados por la nieve***
Egubakoitza: 16:05, 18:00.
Zapatua eta domeka: 11:45, 16:05, 18:00.

***X***
Egubakoitza: 15:30, 17:30, 19:35, 22:00, 00:15.
Zapatua: 11:40, 15:30, 17:30, 19:35, 22:00, 00:15.
Domeka: 11:40, 15:30, 17:30, 19:35, 22:00.

***Star Wars II: El ataque de los clones***
Egubakoitza: 15:45, 18:30, 21:30, 00:30.
Zapatua: 11:30, 15:45, 18:30, 21:30, 00:30.
Domeka: 11:30, 15:45, 18:30, 21:30.

***No debes estar aquí***
Egubakoitza eta zapatua: 20:30, 22:25, 00:30.
Domeka: 20:30, 22:25.

***E.T, el extraterrestre***
Egubakoitza: 15:45, 18:05.
Zapatua eta domeka: 11:40, 15:45, 18:05.

***Suavemente me mata***
Egubakoitza: 15:35, 17:50, 20:15.
Zapatua eta domeka: 12:00, 15:35, 17:50, 20:15.

***La habitación del pánico***
Egubakoitza: 15:35, 17:50, 20:15, 22:30, 00:40.
Zapatua: 12:05, 15:35, 17:50, 20:15, 22:30, 00:40.
Domeka: 12:05, 15:35, 17:50, 20:15, 22:30.

***Mientras haya hombres***
Egubakoitza: 15:40, 17:45, 20:05, 22:35, 00:45.
Zapatua: 11:55, 15:40, 17:45, 20:05, 22:35, 00:45.
Domeka: 11:55, 15:40, 17:45, 20:05, 22:35.

***Sesión 9***
Egubakoitza: 15:40, 17:55, 20:05, 22:15, 00:20.
Zapatua: 11:55, 15:40, 17:55, 20:05, 22:15, 00:20.
Domeka: 11:55, 15:40, 17:55, 20:05, 22:15.

***Invicto***
Egubakoitza: 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:35.
Zapatua: 11:45, 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:35.
Domeka: 11:45, 16:20, 18:20, 20:20, 22:20.

***Vivancos 3***
Egubakoitza: 15:30, 17:30, 19:35, 21:55, 00:05.
Zapatua: 12:00, 15:30, 17:30, 19:35, 21:55, 00:05.
Domeka: 12:00, 15:30, 17:30, 19:35, 21:55.

***Infiel***
Egubakoitza: 15:20, 17:40, 20:00, 22:30, 00:55.
Zapatua: 11:50, 15:20, 17:40, 20:00, 22:30, 00:55.
Domeka: 11:50, 15:20, 17:40, 20:00, 22:30.

***Iris***
Egubakoitza: 22:45.
Zapatua eta domeka: 22:45, 00:40.

***Showtime***
Egubakoitza: 16:15, 18:15, 20:20, 22:40, 00:50.
Zapatua: 12:25, 16:15, 18:15, 20:20, 22:40, 00:50.
Domeka: 12:25, 16:15, 18:15, 20:20, 22:40.

***Blade II***
Egubakoitza eta zapatua: 19:50, 22:25, 00:45.
Domeka: 19:50, 22:25.

***Peter Pan: regreso al país de Nunca Jamás***
Egubakoitza: 16:00, 17:35.
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:00, 17:35.

***El alquimista impaciente***
Egubakoitza eta zapatua: 19:20, 21:45, 00:10.
Domeka: 19:20, 21:45.

***E.T.:* ●●●●● / *Monstruos S.A.:* ●●●● / *Star Wars II: El ataque de los clones:* ●●● / *El hombre que nunca estuvo allí:* ●●● / *Iris:* ●●● / *Blade II:* ●● /**

TXARRA:● ESKASA:●● BALEKOA:●●● ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

# KRITIKA

### COSAS QUE DIRÍA CON SOLO MIRARLA

PUNTUAZIOA: ●●●●

**ZUZENDARIA:** Rodrigo García.
**AKTOREAK:** Glen Close, Holly Hunter, Kathy Baker.

Emakumezko aktoreak sarritan kexu izaten dira zineman ez direlako eurendako pertsonaiak sortzen. Eta berrogei urtetik gorako emakumeak are zailagoa dute rol protagonista bat lortzea. Baina, noizean behin, gezurra badirudi ere, emakumeak lortzen du film baten erdigunea izatea. Hori gertatzen da *Cosas que diría con solo mirarla* filmarekin.

Filmaren gidoilari eta zuzendaria, Rodrigo García, Gabriel García Márquez idazle ospetsuaren semea da. Eta filmak literaturarekin zerikusi handia du. Hasteko, esan dezakegu filmaren izenburua nahiko ezohikoa dela (luzea da eta kutsu poetikoa du) eta, zinemako izenburu bat baino gehiago, liburu baten izenburua dirudiela. Kontakizun laburrez osatutako lana da. 30-50 urte artean dauden emakumeen bost istorio desberdin dira. Orain, ohiko bihurtu da film baten istorio desberdinak bata besteekin nahastuta ikustea. Baina *Cosas que diría con solo mirarla* filmean, azkeneko eszenan denak elkartzen badira ere, istorio bananduak dira. Kontakizun laburren liburu bat izango balitz bezala, istorio bakoitzak bere izenburu berezia du. Istorio guztiek euren bizitzako



bidegurutzean dauden emakumeak ezagutarazten dizkigute: euren duda-mudak, beldurrak eta jasaten duten bakardadea ikusiko ditugu. Lehen hiruretan, gaur egungo hiru emakumeren bizitzetan, fantastikoak edo, behintzat, ezohikoak diren osagaiak nahasten ditu: karta bidez iragana asmatzen duen aztia, emakume baten aholkulari bihurtuko den arlotea, edo auzokide ipotx baten agerpena. Horrela, errealismoa eta fantasia elkartu egiten dira. Azkeneko bi istorioek, alderantziz, errealistagoak eta tristeagoak izanik, badute literaturarekin lotura: bizitzan istorioak kontatzeak eta entzuteak duen ahalmen liberatzaile eta poetikoa aldarrikatzen da bi istorioetan.

Baina ez pentsa film horretan gehiegi hitz egiten dutenik, kamera oso ondo hurbiltzen da pertsonaiengana eta ederki islatzen ditu jasaten ai diren sentipenak eta sortzen diren atmosferak. Ederki jasotzen ditu ipuinek eta kontakizun laburrek lortzen duten izaera etereo eta iradokitzailea.

ANTONIO ZABALA

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Donostian** Antiguo auzoan Matia kaletik eta hondartzatik gertu dagoen etxebizitza salgai. Arratsaldez deitu. 943 79 92 02.

**Eskoriatza.** 92 m²ko etxebizitza. Guztiz jantzita. Ganbara eta garajea. 605 77 35 16.

**Gasteiz.** Autobus geltoki ondoan etxebizitza salgai. Hiru logela, komun bi, sukaldea, egongela eta ganbara. 90 metro koadro. Berrituta. 616 46 54 37.

**Oñatin.** Etxebizitza salgai Santa Marina plazan. 943 78 09 79.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Aretxabaleta.** Etxebizitza ematen da errentan. 943 79 63 24.

**Bergara.** Erdialdean etxea alokatzen dugu abuztutik aurrera. 699 18 75 68.

**Bergara.** Simon Arrieta kalean etxebizitza ematen da errentan. 943 76 17 74.

**Bergara** Etxebizitza berria ematen da errentan Masterrekan. 90 m². Hiru logela. 630 60 47 75.

**Hondarribia.** Apartamentua alokatzen da Hondarribian, uztailean eta abuztuan (hamabostaldiak edo hilabete osoak). 943 64 17 79.

**Mojacar** (Almeria). Hondartza naturista. Apartamentua ematen da errentan naturista-gune baten. Guztiz jantzita. 657 73 94 25.

**Somo.** Etxebizitza alokatzen da Somon (Kantabria). Hondartzatik 50 metrora. Oporretarako edo aste bukaeretarako. Garajea du. 942 33 57 80 edo 630 63 88 93.

**Torrevieja.** Hondartza ondoan dagoen apartamentua alokagai, uztailaren 1etik 31ra bitartean. Igerilekua du. 943 78 04 70.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Lau ikaslek etxebizitza hartuko lukete errentan irailetik aurrera. 660 04 21 84.

**Debagoiena.** Errentan hartzeko etxebizitza bila nabil. Oso premiazkoa da. 600 84 14 81.

### 105. ETXEAK OSATU

**Aretxabaleta.** Etxebizitza osatzeko lagun bat behar dugu. 607 08 80 13 edo 653 01 77 97.

**Aretxabaleta.** Sukaldea erabiltzeko aukera duten logelak ematen dira errentan. 943 79 05 26.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Bergara.** Ozaeta auzoan garajea salgai. 943 76 52 89.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Arrasate.** Sukaldari laguntzaile trebea eta zerbitzariak behar dira Gambrinus tabernarako. 667 60 27 69.

**Arrasate** Neska gertu umeak zaintzeko, arratsaldez. 677 79 32 72.

**Bergara.** Bi emakume etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko gertu, asteburuetan. 650 48 17 51 edo 620 38 30 33.

**Bergara** Neska edozein lan egiteko gertu. 943 76 06 92.

**Debagoiena.** Emakumea gertu etxeko lanak egiteko edo umeak edo nagusiak zaintzeko. 600 84 14 81.

### 402. ESKAERAK

**Bergara.** Arratsaldeetan umeak zaintzen lan egingo nuke. 943 76 08 76.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. ESKAINTZAK

**Arrasate.** Laguntza eskolak ematen ditut udan. 649 22 51 07.

**Bergara.** Ingeleseko eskola partikularrak emango nituzke. 943 76 31 72.

**Ingelesa.** Turismoko ikasle batek ingeleseko eskola partikularrak emango lituzke uztailean. 659 55 25 60.

## 6/ MOTORRA

# Iragarki sailkatuak

**1. ETXEBIZITZAK**
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

**2. GARAJEAK**
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

**3. LOKALAK**
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

**4. LANA**
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

**5. IRAKASKUNTZA**
501. ESKAINTZAK
502. ESKAERAK
503. BESTELAKOAK

**6. MOTORRA**
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

**7. ANIMALIAK**
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

**8. DENETARIK**
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

**9. HARREMANAK**
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

**10. RELAX**

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 76 92 71**

**sailkatuak@goiena.com**

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 9 € (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.

ARRASATE

**SUKALDARI LAGUNTZAILE TREBEA ETA ZERBITZARIAK BEHAR DIRA GAMBRINUSERAKO.**
**667 60 27 69**

BERGARA

**OXIRONDO AZOKAN ZAPATU GOIZETAN GAZTA SALTZEKO NESKA BAT BEHAR DA.**
**943 88 30 09 edo 615 76 44 42**

BERGARA

**LASA JATETXEAN GARBITZAILEA BEHAR DA.**
**943 76 10 55**

GRUPO GENERALI VITALICIO ASEGURUAK

**Hedatze prozesuan murgilduta dagoela-eta, Debagoienerako komertzialak behar ditu.**

**Eskaintzen dugu:**
- Prestakuntza-plan profesional, sakon, pertsonalizatu eta jarraitua.
- Estatuan eta Europan lehen mailan dagoen enpresa baten lan egiteko aukera
- Ordainsari ona

**Lanpostuaren eskakizunak:**
- Komunikaziorako gaitasun eta ekimena
- Komertzial izateko bokazioa
- Ez da beharrezkoa izango komertzial lanetan esperientziarik edukitzea, baina aintzat hartuko dugu.

**Hitzordua egiteko, deitu 943 76 53 46 telefonora**

OÑATI

**ILE APAINTZAILEA BEHAR DA OÑATIKO ILE APAINDEGI BATEN.**
**607 81 52 74**

ARAMAIO

**SUKALDARIA ETA ZERBITZARIA BEHAR DIRA.**
**945 44 50 86**

ARRASATE

